

**TXINGUDIKO
ZERBITZUAK**

**SERVICIOS
DE TXINGUDI**



TXINGUDIKO ZERBITZUAK
SERVICIOS DE TXINGUDI

MEMORIA

**20
24**

Aurkibidea

- 01 Entitatearen aurkezpen korporatiboa
- 02 Mugarri nagusiak
- 03 Mankomunitateko zuzendaritza-organoak
- 04 Aurrekontuak, fakturazioa eta kontratazioak
- 05 Ura
- 06 Hondakinak
- 07 Hiri garbiketa
- 08 Sentsibilizazioa eta komunikazioa
- 09 Pertsonak, erdigunean

01

Entitatearen aurkezpen korporatiboa



Txingudiko Zerbitzuaken...

Bidasoa Beherean, gure helburua da ura zaintzea eta hondakinak arduraz kudeatzea. Etorkizunari begira lan egiten dugu, ingurunea babestu eta herritarren bizi-kalitatea hobetuko duten irtenbide jasangarriak bultzatuz.

Herrietako kaleak garbi eta atsegin mantentzen ditugu, guztiontzat osasungarriagoak izan daitezen.

Ingurumenarekin dugun konpromisoak karbono aztarna murriztera bultzatzen gaitu, energia-eraginkorragoa eta planetarekiko errespetuzkoa den eredua sustatuz. Hondakinei bizitza berri bat ematen diegu, berrerabilera eta birziklapena bultzatuz, ekonomia zirkularraren bidez.

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat egiten dugu, azpiegitura eraginkorretan inbertituz eta kudeaketa gardena eta arduratsua sustatuz.

Zerbitzu publiko gisa, egunero lan egiten dugu etorkizun garbiago, jasangarriago eta herritarrekin konprometituago bat eraikitzeko.

Aldaketa kontzientzia eta ekintza kolektiboarekin hasten da.
TXINZER: elkarrekin, etorkizun jasangarriagoa eraikitzen.



02

Mugarri nagusiak



2. Mugarri nagusiak

2024. urtea urrats sendoen urtea izan da eskualdeko uraren kudeaketa digitalean aurrera egiteko. Txinzerrek berrikuntzarekin, eraginkortasunarekin eta herritarrengana hurbiltzeko konpromisoarekin jarraitu du, eta hainbat mugarri garrantzitsu lortu ditu.

Lorpen nagusietako bat Txingudi Data Driven Bay (TD2B) proiektuaren aitortza izan da. PERTEren bigarren deialdian, ura digitalizatzeko Estatu mailako hiru proiektu onenen artean hautatua izan da. Aintzatespen horri esker, Irun eta Hondarribia uraren kudeaketa jasangarriaren abangoardian kokatu dira, adimen artifiziala, Big Data eta uraren ziklo integrala optimizatzeko eredu prediktiboak sustatuz. Aurrerapauso horiek sendotzeko, erakundean antolatzeko modu berria ezarri da, kultura digitala indartzeko eta datuetan oinarritutako erabakiak hartzea errazteko. Prozesu horri esker, zerbitzu eraginkorragoa bermatuko da.

Gainera, herritarren arretaren esparruan, Irungo Jendaurreko Arreta Bulegoa berritu da, espazio irisgarriagoak, jasangarriagoak eta zerbitzu hurbilagoa eta gardenagoa eskaintzeko. Bestalde, Hondarribiko BAZ-en zabaldutako arreta-bulegoa zabaldu da, eta izandako harrera onak erakusten du erakundeak herritarrekiko harremana etengabe hobetzeko duen konpromisoa.



1.TD2B, ura digitalizatzeko hirugarren proiektu nazional onena PERTEren bigarren deialdian

TXINGUDI DATA DRIVEN BAY (TD2B) proiektuak nazio mailako 238 proposamenen artean hirugarren puntuaziorik onena lortu du. Gainera, Gipuzkoan hautatutako proiektu bakarra izan da.

TD2Bren helburua da eskualdeko uraren hiri-zikloaren kudeaketa modernizatzea eta eraldatzea, digitalizazioaren eta teknologia aurreratuen integrazioaren bidez. Proiektua sentsoreen ezarpenean, adimen artifizialean eta Big Dataren erabileran oinarritzen da, uraren ziklo osoa denbora errealean optimizatzeko.

Horrela, sistemaren ezagutza hobetuko da, uraren ekoizpena eskariaren arabera egokituko da, ihesak murriztuko dira, uholdeen ondorioak minimizatuko dira, uraren kalitatea hobetuko da, eta, gainera, hiriaren saneamendu- eta drainatze-sareak optimizatuko dira, kanalizazioen, emarien eta ingurune hartzailearen egoera kontrolatuz.

Helburu horiek lortzeko, TXINZERek erabakiak hartzen laguntzeko tresna bat garatuko du, **Machine Learningen** eta **Adimen Artifizialaren** tekniketan oinarrituta. Horri esker, datu historikoetan eta egungoetan oinarritutako erabakiak hartu ahal izango dira, baita eredu prediktiboak sortu ere. Tresna digitala, ahal denez, kode irekian diseinatuko da, beste ur-operadore batzuek ere teknologia aurreratua eskuratzeko aukera izan dezaten.



7.162.756,89 €
Proiektuaren aurrekontua

5.461.297,49 €
Trantsizio Ekologikoko
Ministerioaren diru-laguntza

Proiektuak **62 jarduketa** ditu, hiru bloketan bilduta. Lehenen multzoak hainbat plan zuzentzaile planifikatu, txertatu edo eguneratzearekin lotutako neurriak biltzen ditu; aktibo guztiak irudikatu eta digitalizatzea; saneamendu-sarearen karakterizazio digitala; hornidura- eta saneamendu-sareetarako eredu matematiko aurreratuak garatu eta ezartzea; eta, azkenik, sare horiek hobetzeko eraikuntza-proiektuak idaztea.

Bigarren multzoak lau esku-hartze ditu, dagokien ekintza osagarriekin batera, uraren zikloaren lau faseen kudeaketan eraginkortasuna handitzeko: ur-bilketa, hornidura eta banaketa, saneamendua eta hiri-drainatzea, eta isurketa. Gainera, hobekuntzak ezarri dira IoT (Internet of Things) teknologiak komunikazio-tresnetan eta horniduraren energia-sistemetan aplikatzeko, uraren hiri-kudeaketan energia-eraginkortasuna optimizatzea helburu.

Azkenik, hirugarren multzoak ur-baliabideei buruzko datuen komunikazioaren eraginkortasuna eta gardentasuna hobetzeko eta Big Data ingurune batean erabakiak hartzea errazteko jarduketak biltzen ditu.

Proiektu honek Irun eta Hondarribia ur-kudeaketa jasangarriaren erreferente bihurtzeaz gain, Txinzerrek, kudeaketa-erakunde gisa, herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzu publikoak etengabe hobetzeko duen konpromisoa ere indartzen du.



2. Kultura-alaketaren beharra, eraldaketa digitala lortzeko

Kultura eraldatzeko proiektua

TXINGUDI DATA DRIVEN BAY Hiri Uraren Ziklo Integralaren Eraldaketa Digitaleko Proiektua garatzeko, unean uneko antolaketa-beharrak eta erakundearen **Lanpostuen Baloraziotik (VPT)** eratorritako antolaketa-diagnostikoaren hobekuntza-proposamenak kontuan hartuta, ondorioztatzen da **ERALDAKETA DIGITALEKO** proiektuak efizientea, erabilgarria, jasangarria eta etorkizunean arrakastatsua izateko ezinbestekoa dela erakundearen **ERALDAKETA KULTURALA** egitea, pertsonak ardatz hartuta, eta **PROZESUEN ARABERAKO KUDEAKETA** ezartzea.

Horretarako, erakundearen barruan Prozesuen Berringeniaritza lan integrala egingo da.

Lehenik eta behin, **PERTE Taldeko** langileei prestakuntza eskainiko zaie prozesuetan eta etengabeko hobekuntzan. Prestakuntza-saio eta ariketa praktikoen ondoren, etengabeko hobekuntzaren aldeko eraldaketa kulturala modu integralean garatuko da.

Hori gauzatzeko, PERTE proiektuan zehar, aldi baterako kontratazioez gain, antolakuntza-profil tekniko bat ere kontratatuko da, eta Lean Management-en espezializatutako aholkularitza-enpresa bat izango da prozesuan laguntzeko.

Zuzendaritzak argi du ezaugarri horiek aldatzeko ezinbestekoa dela honako alderdi hauek sustatzea:

- Lankidetzak eta partaidetza-giroa, sormena eta etengabeko hobekuntza bultzatzeko.
- Elkarriketa eta informazio-fluxu eraginkorra, mezu garrantzitsuak taldeetara behar bezala iritsi daitezen.
- Aldaketaren aldeko jarrera, beldurrak gaindituz eta erosotasun-eremutik irtenda; azken finean, aldaketa mehatxu gisa ikusi beharrean aukera gisa ulertzea.
- Gaitasun digitalen inguruko prestakuntza, teknologia berriak menderatuz eta kultura digitalaren balioekin bat egitea errazteko.
- Proiektuaren ikuspegia eta lidergoa, pentsamoldea eta balioak eraldatzeko, zuzendaritzaren eta bitarteko arduradunen bidez.
- Digitalizazio-proiektuarekiko konpromisoa, koherentzia eta jarrera egokia, bai arduradun nagusien bai tarteko arduradunen aldetik.

Horrek ere lan giroa hobetzeko balioko duelakoan.

Hori dela eta, **TXINZER**ek dagoeneko hasi du diagnostiko kulturalako prozesu bat, maila guztietan, erakundearen barruan, psikologian eta aldaketaren kudeaketan espezializatutako aholkularitza enpresa baten eskutik, erakundearen egungo antolaketa kultura zein den identifikatzeko hasierako helburuarekin, ondoren Ekintza Plan bat zehazteko, bultzatu nahi den Digitalizazio Proiektuarekin eta Prozesuen araberako Etengabeko Hobekuntzarekin bat datozen erakunde kulturaren balio batzuk bultzatzeko.

URRIAN, bilera pertsonalak egin ziren arloko arduradunekin, eta, horretarako, aldeztu aurretik **ZUZENDARITZA TALDEAREN KULTURARI** buruzko galdetegi bat betetzeko eskatu zitzaion.

AZAROTIK ABENDURA arte, langile guztiek **ERAKUNDE KULTURA GLOBALARI** buruzko galdetegi bat betzeko epea zabaldu zen. Guztira 35 galdetegi jaso ziren.

ABENDUAREN 16an 3 talde-saio egin ziren arlo ezberdinetako langileekin, eta guztira 25 pertsonak hartu zuten parte kultura-diagnostikorako jardunaldietan.

NEGOZIORAKO BIDE ESTRATEGIKOA

- Helburua
- Misioa
- Ikuspegia
- Plan estrategikoa
- Gestio Plana
- Helburuak
- Funtzioak
- Adierazleak
- Proiektuak
- Jarduerak

PERTSONEN GOGOBETETZEA

LIDERGO PARTE- HARTZAILEA

EMAITZAK

KULTURAREN BIDEA

- Diagnostiko kulturala
- Nahi den kultura-eredua
- Baloreak
- Lidergo-estiloa
- Kultura-aldaketa sustatzeko estrategiak eta sistemak
- Eskumenak
- Portaerak
- Espazio fisikoak

Helburua kultura, pertsonak eta ESTRATEGIA lerrokatzea da.

3. TXINZERen Jendaurreko Arreta Bulegoak: hurbileko eta bikaintasunezko zerbitzua eskaintzeko espazio berriak


Irungo Jendaurreko Arreta Bulegoaren itxura berria

Berrikuntza-prozesu baten ondoren, Irungo Jendaurreko Arreta Bulegoak berriz zabaldu ditu ateak, herritarrentzat funtsezkoa den harremanetarako gune gisa duen zeregina berriz definituz. Espazio berriak honek abonatuak **arreta** eta esperientzia hobetzea du helburu, eta, aldi berean, **jasangarritasunari** eta **efizientzia energetikoari** ere erreparatzen dio, zerbitzu publiko moderno eta arduratsuaren eredu bihurtuz.


Bulegoaren birdiseinuaren helburua **kalitate goreneko arreta** eskaintzea da, hurbiltasunean, pertsonalizazioan eta komunikazio argi eta gardenean oinarrituta. Horrez gain, orain herritarrentzat irisgarriagoa eta abegikorragoa den espazio bat eskaintzen da.

Irisgarritasunari dagokionez, besteak beste, sarrerako koska ezabatu da; haren ordez, arrapala txiki bat jarri da, erabiltzaile guztiek sarbidea errazago izan dezaten. Bestalde, bulegoak pantaila bikoitzeko sistema bat du, sinatu aurretik herritarrek dokumentazioa berrikusteko aukera izan dezaten, izapideen gardentasun handiagoa bermatuz.

Finean, bidasotar bakoitza bere gestioetan lagunduta sentitzea nahi da, eta bulego honetan informazioa modu argian, gardenean eta arreta pertsonalizatuarekin jasotzeko leku bat aurkitzea.



LEHEN



ORAIN



Hondarribiko arreta bulegoaren balantze positiboa, lehen urtean

2024ko urtarrilean, Txinzerrek jendaurreko arreta bulegoa ireki zuen **Hondarribiko BAZen**, bertako herritarrei zerbitzuak hurbiltzeko. Horrela, erakundearen oinarrizko zutabeetako bati erantzuten dio: **HURBILTASUNARI**. Zerbitzu hau astelehenero eskaintzen da, 08:30etik 14:00etara.

Ekimen hau Txinzerrek herritarren iradokizun eta eskaerei erantzuteko duen konpromisoaren adibide garbia da. Helburua da zerbitzua herritarren beharretara egokitzea eta administrazioarekiko harremanak erraztea.

Hondarribian arreta zerbitzua eskaintzea aspalditik zuten helburu Txinzerrek eta Hondarribiko Udalak, eta, ondorioz, bi aldeen arteko lankidetzaren fruitua da. Zerbitzu berri honek hondarribitarren bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du, izapideak eta kontsultak Irunera joan beharrik gabe egiteko aukera emanez. Horrek denbora eta baliabideak aurrezteak ere badakar.



4. Diruz lagundutako beste proiektu batzuk

URAMUGA proiektua

INTERREG POCTEFA URAMUGA (EFA082/01) proiektuaren baitan, "Uraren zikloaren kudeaketa iraunkorra eta baterako gobernantza mugaz gaindiko arroetan" ekimenaren barruan, proba pilotu bat egin da Txingudiko Zerbitzuen saneamendu-sarean infiltrazioak aztertzeko. Horretarako, tenperatura banatua detektatzeko teknologia (DTS) erabili da, eta lanak FACSA enpresak gauzatu ditu.

DTS teknologia tresna berritzailea da saneamendu-sareetan ur parasitoen infiltrazioak detektatzeko. Hodietan zuntz optikoa instalatuta, teknika honek sare osoa etengabe monitorizatzeko aukera ematen du, nahi ez diren uren sarrera-puntuak azkar eta zehatz identifikatzea erraztuz. Teknologia honek kolektorean gertatzen diren tenperatura-aldaketak hautematen ditu, hondakin-uraren eta infiltrazioen arteko tenperatura-diferentziak baliatuz. Izan ere, azken horiek kolektoreko uraren tenperatura desberdina izaten dute (ur freatikoak, ibai-urak, itsasoko urak edo bestelako isurketak, adibidez).

Ikuspegi hau eraginkorra izan da saneamendu-sarean akatsak aurkitzeko, ur parasitoak sartzen baitira bertan. Hala ere, eroanbideetan zuntza instalatzea teknika konplexua denez, komeni da DTS sistema erabiltzea ikuskapen- eta kontrol-metodo tradizionalak nahikoak ez diren kasuetan.



ILUSTRACIÓN 5.- TRAMO DE COLECTOR A ESTUDIAR CON TÉCNICA DTS



ILUSTRACIÓN 21.- PROPUESTA DE POZOS Y TRAMOS DE COLECTOR A REPARAR

PERTE Hondarribia

"Hondarribiko hondakin-urak erregulatzeko azpiegituretako isurketen bolumena eta kalitatea etengabe neurtzeko ekipamendua" proiektua Uraren Euskal Agentziak (URA) diruz lagundu du eta Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean (PRTR) sartuta dago. Egitasmo honek uraren zikloa digitalizatzeko Berreskurapen eta Eraldaketa Ekonomikorako Proiektu Estrategikoaren (PERTE) helburuak betetzen laguntzen du. Proiektuaren barruan, merkatuan garatzen ari diren hainbat irtenbide berritzaile ebaluatu dira, helburu nagusia saneamendu-sareko urruneko estazioetan isurketen kalitatea monitorizatzea delarik. Estazio horietan, egiturazko baldintzek zaildu egiten dute saneamendu-sareen kontrolean ohiko sistemak erabiltzea, eta horregatik, alternatiba berritzaileak aztertu dira.

5. Hiri Drainatze Jasangarrirako Plana onartzea

Txingudiko Zerbitzuak-ek uholdeen aurkako babesa indartu du, Bidasoa Behereko Hiri Drainatze Jasangarriaren Plan Zuzentzailearen bidez. Plana 2024ko abenduaren 20ko Administrazio Kontseiluan onartu zen.

Plan Zuzentzailea mugarri izango da Bidasoa Behereko eskualdeko uraren kudeaketan eta uholdeen aurkako babesean. Plangintzako tresna estrategikoa da, eta entitateak jasangarritasunarekin, **JARIATZE-UREK ERAGINDAKO UHOLDE-ARRISKUEN PREBENTZIOAREKIN** eta **KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEAREKIN** duen konpromisoa islatzen du.

Planaren helburu nagusia da Irungo eta Hondarribiko saneamendu- eta drainatze-sarearen modelizazioa eta funtzionamenduaren diagnostikoa hobetzea, bai eta sarean ezarri beharreko hobekuntzak zehaztea ere, batez ere honako hauetarako:

- Uholdeen arazoa konpontzea
- Sare unitariotik ur-masetara egiten diren isurketak minimizatzea eta kontrolatzea

Planaren garapena

Plana bost fasetan garatu da:

1.Eredu hidrologiko eta hidraulikoaren sorrera, hirian eta ingurune naturalean urak nola zirkulatzen duen ulertzeko. Mapetan eta erregistroetan falta diren datuak ere identifikatu dira, eta euri historikoak eta maila- eta emari-neurgailuak aztertu dira.

2.Sarearen funtzionamenduaren diagnostikoa. Euriteek eta mareek eragindako uholdeak aztertu dira, bai eta sareak gainezka egiten duen eremuak eta horrek sortzen dituen arazoak ere.

3.Hiri-hazkundearen analisia, etorkizunean hirigintza-garapenak drainatze-sistemari nola eragin diezaiokeen aurreikusteko.

4.Sarearen konponbideak definitzea, hobekuntza-lanak, emarien erregulazio-neurriak eta larrialdi-egoeren analisia barne hartuta.

5.Inbertsioen plangintza, hobekuntzak modu mailakatuan eta eraginkorrean gauzatzeko.

Eta horrekin guztiarekin, Planean proposatutako hobekuntza batzuk jasotzen dira:

- **Euri-ur biltegiak** eraikitzea, euri-jasa handietan ur soberakinak biltegitratzeko eta kudeatzeko:
 - **Gal**
 - **Amute**
 - **Alameda**
 - **San Pablo**
- **Sare bereizlea zabaltzea,** sare unitarioaren karga arintzeko eta uholdeak maiz gertatzen diren auzoetan isurketak ekiditeko.
- **Ponpaketa-estazioak eta gainezka bideak modernizatzea,** haien gaitasuna eta efizientzia hobetzeko.
- **Arrisku-eremuetan azpiegitura hidraulikoak indartzea,** Irungo eta Hondarribiko puntu zaurgarrienetan neurri espezifikoak ezarriz.




U HOLDEAK EURIAGATIK ETA MAREENGATIK

Euriteek eragindako gainazaleko uholde-egoera
(P,T = 10;2h.) + Mareen eragina (2,4m AD)



DRAINATZE- SARERAKO PROPOSATUTAKO SOLUZIOAK

AZALEKO U HOLDEAK ETA INGURUNERA
ISURKETAK SAIHESTEKO



6. Tasen eguneratzea

2023ra arte, tasak izoztuta mantendu dira urte luzez, herritarrek pandemiaren ondorio ekonomiko negatiboak pairatu ez zitzaizkion eta, aldi berean, eros-ahalmena babesteko, uraren oinarritzako zerbitzuarekin lotutako inflazio handiaren aurrean.. Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitate Batzarrak 2025erako hondakinen eta uraren tarifak igotzea onartu du, 2024an bezala.

Hondakinen eta uraren tarifak igotzeko erabakia Mankomunitateak egindako ebaluazio prozesu sakonaren ondorio izan da, emandako zerbitzuen bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko. Igoera horrek funtsezko garrantzia du erakundearen inbertsio-gaitasuna berreskuratzeko eta Irunen eta Hondarribian kalitatezko zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko. Gainera, neurria bat dator Europar Batasunak ezarritako ingurumen-helburuekin, hondakinen eta uraren kudeaketan praktika jasangarriak sustatzeko eta ingurumen-estandar zorrotzak betetzeko aukera emango baitu.

Hondakinen tasa:

2024ko urriaren 14ko Administrazio Kontseiluan 2025eko ekitaldirako onartutako tarifak honakoak izan ziren:

- **Etxekoak**

SMateria organikoa bereizten duten familiei **%5eko** igoera ezarriko zaie **-urteko 148€-**. Igoera hori **%12koa** izango da **-urteko 273 €-** aurreko urtearekin alderatuta materia organikoa bereizten ez duten etxebizitzetan. Horrela, **familia jasangarri baten eta jasangarria ez den baten arteko aldea urteko 125 €-koa izango da**. Hartutako neurri horiekin, herritarren artean edukiontzi marroiaren erabilera sustatzea da helburu nagusia.

- **Etxekoak ez direnak**

Etxekoak ez diren harpidedunentzat eta sorgailu handientzat, tasa **%12** igoko da.

Uraren tarifa:

2025erako **% 5eko igoera** aplikatuko da – **hilean 1,37 €-ko** igoera batez besteko kontsumoa duen familia batentzat –, datozen urteetan inbertsio gaitasuna pixkanaka berreskuratzeko helburuarekin.

2025erako tarifak onartu badira ere, **lantalde bat sortu da eskualdean datozen urteetarako ur-tarteen tarifak aztertzeko**. Ekimen honen helburu nagusia uraren erabilera arduratsua egiten duten pertsonak saritzea eta aintzat hartzea da, praktika jasangarriak eta kontzienteak sustatuz. Lantaldeak tarteen arabeko tarifa-sistema bat diseinatuko du, etxe bakoitzaren benetako kontsumoa modu bidezkoagoan islatzeko. Horrek esan nahi du ur gutxiago erabiltzen dutenek tarifa baxuagoak ordainduko dituztela, eta gehiago kontsumitzen dutenak, berriz, erabilera murriztera bultzatuko direla.

Egoera zaurgarrian dauden familientzako laguntzak

Gure herritar askok aurre egin behar dioten egoera zaila dela eta, kalteberatasun-egoeran dauden familiei laguntza ematen jarraituko dugu, eta, horrela, gizarte-ezkutua mantenduko dugu baliabide gutxien dituzten familientzat.


- Bermatzen dugu ez zaiola inori zerbitzurik moztuko uneren batean ordaindu ezin badu eta justifikazio egokia ematen.
- Baldintzak betetzen dituztenek tasa murriztua izango dute uraren eta hondakinen fakturan, eta horrek tasa arruntarekin alderatuta **%50eko** murrizketa suposatzen du.

7. Kontseilarien bisita Txinzerren instalazioetara

Otsailean, Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitateko kideek bisita egin zuten Txinzerren instalazioetara, erakundearen funtzionamendua eta egiten diren lanak bertatik bertara ezagutzeko.

Endarako urtegiaren sakonetik hasi, Edateko Uraren Tratamendurako Estazioa (EUTE) ezagutu eta Hondakin Uren Araztegiraino (HUA), fase bakoitzeko lan-prozesua gertutik ikusteko aukera izan zuten.

Leire Zubitur gerenteak lagunduta eta arloko arduradunek gidatuta, bisitaren helburu nagusia instalazio horietan egiten diren eragiketen ikuspegi orokorra eta integrala ematea izan zen.



8. TXINZERek Garapen Jasangarriko Helburuei (GJH) eta AGENDA 2030i egindako ekarpen-maila

2021eko ekitaldiaren amaieratik, TXINZERen metodologia bat ezarri zen Garapen Iraunkorreko Helburuei (GJH) egindako ekarpena ebaluatzeko eta 2030era arteko ibilbide-orria ezartzeko. Erakundeak, 2030 Agendarekin konprometituta, bere hartzen ditu uraren, hondakinen eta hiri-garbiketaren arloko eskumenekin lotutako GJHak. Horren eragina Bidasoa Behereko eskualdeko alderdi sozial, ekonomiko eta ingurumenekoetara hedatzen da.

Txingudiko Zerbitzuaken 2030 Agenda 17 GJHetatik 13tan zentratzen da, 38 jomuga, 137 ekintza, 98 adierazle eta 16 plan estrategikorekin.

AGENDA NACIONES UNIDAS 2030		AGENDA SERVICIOS DE TXINGUDI 2030				
ODS	ESFERAS DE IMPORTANCIA	ODS	METAS	ACCIONES (1)	INDICADORES (2)	PLAN O HERRAMIENTA ESTRATÉGICA
17	5	13	38	137	98	16
1. Fin de la pobreza 2. Hambre cero 3. Vida sana y bienestar 4. Educación inclusiva 5. Igualdad de género	PERSONAS	1. Fin de la pobreza 3. Vida sana y bienestar 4. Educación inclusiva 5. Igualdad de género	9	26	23	- Ordenanzas Fiscales nuevas con tarifas destinadas a personas en situación de vulnerabilidad (1.4.3) - Plan de trabajo para minimizar vertidos a cauce (3.9.4) - Programa de Educación Ambiental (4.7.1) - Plan de Igualdad (5.1.1)
6. Agua y saneamiento 12. Consumo y producción sostenibles 13. Cambio climático 14. Recursos marinos 15. Ecosistemas	PLANETA	6. Agua y saneamiento 12. Consumo y producción sostenibles 13. Cambio climático 14. Recursos marinos	16	85	86	- Plan Director de Drenaje Urbano Sostenible (6.3.2) - Ordenanza de Ahorro de agua (6.4.10) - Plan Director de Abastecimiento (6.4.12) - Programa de Inversiones P2025 (EUSK34.1) - Programa de Inversiones P2035 (EUSK34.5) - Agenda2030 (12.6.1)
7. Energía 8. Crecimiento económico y empleo 9. Infraestructuras e innovación 10. Reducir la desigualdad 11. Ciudades y asentamientos urbanos	PROSPERIDAD	7. Energía 8. Crecimiento económico y empleo 9. Infraestructuras e innovación 11. Ciudades y asentamientos urbanos	13	38	48	- Plan de transformación digital TXINZER 4.0 (8.2.3) - Plan de Euskaldunización (8.5.4) - Plan de Prevención, Seguridad y Salud (EUSK46.1) - Plan Integral de Residuos Urbanos 2022-2030 (11.6.1) - Plan de mejora de la Limpieza Viaria (11.6.2)
16. Paz y Justicia	PAZ	16. Paz y Justicia	1	2	3	- Manual de Buen Gobierno (EUSK89.2)
17. Alianzas / Cooperación al desarrollo	PARTENARIADO	-	-	-	-	-

Nabarmentzekoa da, batez ere, 6., 11. eta 12. GJHetan egiten dugun ekarpena, ur garbiarekin eta saneamenduarekin, hiri jasangarriekin eta ekoizpen eta kontsumo arduratsuarekin lotuta. Ekintza positiboak nabarmentzen dira, hala nola ura ekitatez eskuratzea eta hondakinen kudeaketa jasangarria, 2030ean % 70eko birziklapen tasa lortzeko helburuarekin.



Uraren, hondakinen eta hiri-garbiketaren kudeaketa zuzenaz gain, TXINZERek ingurumen-hezkuntza sustatzen du (4. GJH) eta tokiko energia berriztagarria ekoizten du, berotegi-efektuko gasen emisioak murriztuz (7. GJH eta 13. GJH). Iraunkortasunerako bidean, gizartearen parte-hartze kontziente da gakoa, eta biztanle guztiek dute funtsezko zeregina eraldaketa globala lortzeko, inor atzean utzi gabe.

9. Txingudiko Zerbitzuak, Irungo Hiritar Foroaren solasaldira gonbidatuta


Herritarrak dinamizatzea eta informatzea helburu duen Irungo Hiritar Foroak Txinzer gonbidatu zuen martxoko solasaldira, 2022an Birziklapen Tasak izandako beheranzko joerari buruzko kezkak aztertzeko. Hiri bizigarriagoa, bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzeko lan egiten du Foroak, herritarren parte-hartzea batzorde guztietan parte hartuz. Birziklatze-tasa handitzeko haien ekarpenak eta ideiak entzutea izan zen bilkuraren helburua. Horrez gain, solasaldia baliatu zen gure etxeetan kontsumitzen den urari eta kale-garbiketari lotutako berezitasunak eta hobekuntzak partekatzeko, baita parte-hartzaileen iritzia jasotzeko ere.



03

Mankomunitateko zuzendaritza-organoak





3. Mankomunitateko gobernu-organoak

Mankomunitatearen organoak ordezkarien Batzarra, Presidentea eta Presidenteordea dira. Batzarrak sei eta hogeitatzarkide artean ditu, eta kideen legezko kopurua une bakoitzean finkatzen da mankomunitatutako udaletako udal talde politikoen eta atxiki gabeko zinegotzien kopuruaren arabera, 2016an onartu zen Mankomunitatearen estatutuen funtsezko aldaketari jarraiki. Aurreikuspen horien arabera, gaur egun, Cristina Laborda Presidenteak, Igor Enparan Presidenteordeak eta beste hamar batzarkidek osatzen dute Batzarra, sei Irungo Udalak izendatuak eta lau Hondarribiko Udalak izendatuak.

Mancomunidad de Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak Mankomunitateko Batzarra ondorengo zuzendaritza-organoak osatzen du:

ZUZENDARITZA ORGANOAK
LEHENDAKARITZA
- Lehendakaria, Cristina Laborda Albolea anderea (Irun) - Lehendakariordea, Igor Enparan Araneta jn.(Hondarribia)
BATZARKIDEAK
- Batzordekidea: Miguel Ángel Páez Escarmendi jn. (Irun)(Karguari uko egitea 2024/06/21) - Batzordekidea: Jon Ugarte Petricorena jn. (Irun)(Izendapena 2024/07/19) - Batzordekidea: Borja Olazabal Toro jn. (Irun) - Batzordekidea: Gorka Alvarez Aranburu jn. (Irun) - Batzordekidea: Oihana Briones Aramendi anderea (Irun) - Batzordekidea: David Nuño García jn. (Irun) - Batzordekidea: Iñigo Manrique Cía jn. (Irun) - Batzordekidea: Ortzi Alonso Murelaga jn. (Hondarribia) - Batzordekidea: Gonzalo Carrión Insausti jn. (Hondarribia) - Batzordekidea: Maria Noemi Odriozola Pascual andrea (Hondarribia) - Batzordekidea: Garoa Lekuona Izeta anderea (Hondarribia)

SERVICIOS DE TXINGUDI-TXINGUDIKO ZERBITZUAK, S.A.

Estatutuen 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, Mankomunitateak zuzeneko kudeaketaren bidez kudeatzen ditu bere eskumeneko zerbitzuak, tokiko merkataritza-sozietatearen bitartez: **Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A.**

Merkataritza-sozietate gisa, bere estatutuak ditu, eta, bertan, bere helburu soziala definitzen da, Mankomunitateari esleitutako eskumenekin bat etorriz. Era berean, gobernu-egitura, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dira, besteak beste.

Sozietatearen kudeaketa hiru organo nagusiren esku dago: **Batzar Orokorra, Administrazio Kontseilua** eta **zuzendari kudeatzailea**.

Batzar Nagusiaren eta Administrazio Kontseiluaren osaketa bat dator Mankomunitateko Ordezkarien Batzarrarekin. Beraz, egitura berari eusten zaio, **presidente** eta **lehendakariorde** karguak barne.

Batzar Nagusiko eta Administrazio Kontseiluko kideek ez dute ordainsaririk edo dietarik jasotzen beren eginkizunak betetzeagatik.

Aurrekontuak, fakturazioa eta kontratazioak



1. Aurrekontuak 2024

2017ko ekainaren 30era arte, Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatearen eskumen guztiak SERVICIOS DE TXINGUDI-TXINGUDIKO ZERBITZUAK SA. izeneko kudeaketa-sozietatearen bidez kudeatzen ziren.


2017ko uztailaren 1etik aurrera, Mankomunitateak zuzenean hartu zuen bere gain hondakinen altaren kudeaketa; beraz, SERVICIOS DE TXINGUDI-TXINGUDIKO ZERBITZUAK SArri dagokion ekitaldiko aurrekontuan, hondakinen jardueran, bajako kudeaketari dagokiona baino ez da sartzen.

Kopuru handiak

Uraren Ziklo Integrala	16.730.733€
Hondakinen bilketa (Sozietatea + Mankomunitatea)	14.085.011€
Kale-garbiketa	5.785.729 €

36.601.473€
(+%9)
2024 Aurrekontua, guztira

9.814.746€
(+%23)
Aurreikusitako inbertsioak 2024



2. Fakturazioa

Etxeko kontsumoei eta etxekoak ez diren kontsumoei dagozkien likidazioak hilerok jaulki dira.

Ur kontsumoaren **fakturazia guztira, BEZik gabe, 10.532.961 eurokoa** izan da 2024ko ekitaldian; 2023an, 9.914.802 eurokoa izan zen. Fakturazioaren hazkunde horren arrazoia izan da etxekoa ez den kontsumoa handitu dela, jarduera ekonomikoa pixkanaka suspertu delako 2021. urtearekin alderatuta, non jarduera hori aktibatzen hasi baitzen pandemiaren aurreko urteen ondoren, eta, hein batean bakarrik konpentsatu baitu etxeko kontsumoak jasandako beherakada.

Uraren fakturazioari dagokionez, komeni da gogoratzea 2008ko azaroaren 4an Uraren Kanonaren araubide ekonomiko administratiboa garatu eta onartzen duen 181/2008 Dekretua onartu zenetik, enpresa hornitzaileak behartuta daudela fakturan sartzera eta, beraz, URA Uraren Euskal Agentziaren kontura biltzera 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera sortutako etxekoak ez diren kontsumoak zergapetzen dituen kanona. Bere kanonaren bilketa eta eragina etxekoak ez direnengan 2022ko urtarrilaren 1ean desagertu zen, enpresa hornitzaileak kanon horren subjektu pasibo bihurtu direnean, Uraren Kanonaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 229/2021 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

2023ko ekitaldian, Servicios de Txingudi -Txingudiko Zerbitzuek ordaindutako **kanona 203.379 eurokoa** izan da.

Hondakinen bilketari eta tratamenduari dagokionez, 2024ko abenduaren 31n 41.825 abonatu zeuden guztira, eta horietatik 36.343 etxekoak ziren. Azken horietatik, 22.644 Edukiontzi marroiaren gaikako bilketa-sistemara eta/edo autokonpostajera atxikitako etxebizitzak epigrafera apuntatuta zeuden; azken horien artean, etxebizitza kaltebera zeuden (136).

Sozietatean, hondakinen baja-kudeaketari dagokion BEZik gabeko fakturazioa 5.980.041 eurokoa izan zen, eta aurreko ekitaldian 5.535.317 eurokoa. **Mankomunitatean**, berriz, tasengatiko diru-sarrerak **5.281.664** eurokoak izan ziren, aurreko ekitaldiko 4.888.478 euroen aldean. Aipatu behar da desberdintasun horiek, funtsean, aipatu ditugun tasa-tarifen doikuntzen ondorio direla.

Aipatzekoa da, halaber, kopuru horietan jasota daudela tasa-tarifen erregularizazio gisa fakturatutako zenbatekoak, edukiontzi marroiaren gaikako bilketa-sistemari eta/edo konpostaje-autoari atxikitako Etxeen epigrafean izena emanda egonik, ekitaldian ezarritako erabilera-baldintzak bete ez dituzten erabiltzaileentzat.

Nabarmentzeko alderdiak, Sozietatean

- Hondakinak ustiatzeko dirulaguntzen sarreren partidaren barruan dago erregistratuta sozietateak Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren (GHK) kontura hondakinak garraiatzeko egiten dituen gastuak finantzatzeko ekarpena. 2024an, ekitaldi honetako ekarpen propioak eta 2023ko prezioen berrikuspena jasotzen ditu. Uraren kasuan, batez ere **PERTE** eta **URAMUGA** programekin lotuta itxi arte egindako gastuengatik sortutako diru-laguntzari dagokio.
- Ekitaldi honetan, ekoizpen elektrikoaren salmentengatiko sarrerak 200.480 eurokoak izan dira, 2023koak baino nabarmen txikiagoak. Pasa den ekitaldian 252.108 eurokoak izan ziren.
- Uraren arloan egindako inbertsiorik esanguratsuena 2024an amaitu ez zen Errandoneako Ur Biltegia birgaitzeko obra izan da.
- Irungo kale-garbiketak ez du inbertsiorik izan 2024an. Hondarribiko kale-garbiketari dagokionez, paperontziak berritu dira.

	Ura	HONDAKINEN	Hiri Garbiketa IRUN	Hiri Garbiketa HONDARRIBIA	GUZTIRA
		behe- kudeaketa			
Tarifen sarrerak	10.532.961	5.980.041	0	0	16.513.002
Bestelako diru-sarrerak	680.232	1.448.194	4.470.130	1.128.182	7.726.738
Ohiko dirulaguntzak	67.125	501.268	0	0	568.393
Ibilgetutik etorritako sarrerak	148.831	88.058	0	0	236.889
Kapital dirug. atalera eramana	2.588.634	49.701	223.959	55.990	2.918.284
Pertsonal gastuak	4.018.042	726.291	117.928	29.057	4.891.318
Erosketak, mant. eta zerbitzuen best. Gast.	2.834.876	5.645.535	4.351.218	1.098.225	13.929.854
Zergak	283.167	1.120	984	900	286.171
Amortizazioak	4.663.173	698.664	223.959	55.990	5.641.786
Finantza gastuak	232.193	4.416	0	0	236.609
Inbertsioak	2.856.247	443.340	0	30.862	3.330.449

Nabarmentzeko alderdiak, Mankomunitatean

	HONDAKINEN GOI kudeaketa
Tasen sarrerak	5.281.664€
Bestelako sarrerak	367.320 €
Kapital-transferentziak	0 €
Kontsumoak, mantentzeak eta zerbitzuen bestelako gastuak	4.942.864 €
Transferentzia arruntak	367.320 €
Inbertsioak	0 €

3. Lanen kontratazioa

Txinzer tokiko merkataritza-sozietatea da, %100ean kapital publikoa duena. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera, kontratazio-organotzat hartzen da, nahiz eta administrazio publikoa ez izan.

Kontratazioa 2024an

64

Izapidetutako espedienteak.
23 kontratu ireki, 3 publizitaterik gabe negoziatuta
-esklusibotasun-arazoiengatik- eta 38 kontratu txiki

69.598.705 €*
Kontratuen balio zenbatetsia 3.000 eurotik beherako balioa duten
balizko kontratu txikiak kontuan hartu gabe

*2024 urtean kale-garbiketa zerbitzua eta HIRI HONDAKINEN bilketa kontratu nagusia lizitatu da, kontratuaren aurreikusitako balioa 59.614.492,74 €-koa izanik. Nolanahi ere, kale-garbiketa zerbitzua eta HIRI HONDAKINEN bilketa kontratua lizitatu izana kontuan hartu gabe ere, 2024an lizitatutako kontratuen aurreikusitako balioa 2023an lizitatutakoa baino %25 baino handiagoa da.


Prozeduren arabera kontratatutako bolumena

Kontratutako balio zenbatetsiaren % **99,27**, hau da, 69.090.857,40 €, kontratazio-prozedura irekiko modalitatearen baten bidez kontratatu da:

- **Erregulazio harmonizatuko prozedura irekia edo sektore berezietako legeria (ura):** 65.555.528 €
- **Ohiko prozedura irekia:** 4.385.329,89 €
- **Prozedura ireki supersinplifikatua edo sinplifikatu laburtua:** 95.000 €


Kontratutako gainerako balio zenbatetsia (% **0,73**), hau da, 507.847,60 euro, honela kontratatu da:

- **Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua:** 168.000 €
- **Kontratu txikiak:** 339.847,60 €



Kontratuaren objektuen arabera banaketa

- **Zerbitzuak:** 62.758.070 €
- **Hornikuntzak:** 3.151.882 €
- **Obrak:** 3.348.904 €




Izapidetutako espedienteetan jasotako errekurtsoak

2023ko Memoria ixteko unean, urte horretan izapidetutako espedienteetan ez zela erreklamaziorik jaso adierazi zen. Hala ere, ondoren, 2023SERV007 espedientearen esleipen-akordioaren aurkako errekurtsoa aurkeztu zen. Espediente hori materia organikoko edukiontzietako giltzarrapoen zerbitzuari eta hornidurari zegokion, eta Euskadiko Kontratu-errekurtsoen Organo Administratiboak errekurtsoa erabat ezetsi zuen.

2024ko espedienteetara dagokienez, datuak ixteko unean, izapidetutako kontratazio-espedienteen esparruan ez da errekurtsorik jaso. Hala ere, ekitaldi horretan abian jarritako espediente guztiak oraindik ez daude itxita.



05



Ura



1. Tarifen politika

2018tik 2023ra tarifak %2 baino ez dira igo. 2024an, Uraren Ziklo Integralari dagokion jardueran, bai Hornidura zerbitzuetan bai Saneamendu zerbitzuetan, %7,5eko igoera ezarri da tarifetann, aurreko urteko ekitaldiarekin alderatuta.

14 m³-ko hileko kontsumorako, hau da, 13 mm-ko kalibreko 4 kideko etxebizitza baterako kalkulaturako kontsumorako, fakturaren igoera 1,9 eurokoa izango da hilean, hau da, 22,8 eurokoa urtean.


2024rako tarifa-igoera beharrezkoa izan da tarifak doitzeko eta erakundearen inbertsio-gaitasuna bermatzeko.

	2023	2024
Kuota Finkoa	57,96	62,31
Kuota Aldakorra	218,62	235,01
BEZik gabe	276,58	297,32
BEZ 10%	27,66	29,73
GUZTIRA	304,24 €	327,05 €

2. Adierazpen orokorrak

UR KONTSUMOA	110,89 l/biztanle*egun (-1,71l /biztanle*egun, 2023an)
SAREAREN ERRENDIMENDUA	%82 (helburua %85, 2023an)
AZTERTUTAKO UR LAGINAK	5.701(+50, 2023an)
PLUBIOMETRIA GUZTIRA (ENDARA)	2.969 l/m2 (-% 0,5 %, 2023an)

Endarako plubiositatea eta baliabideak




Fakturatutako ur-kontsumoak

2024an fakturatutako ur-kontsumoa 4.374.332 m³-koa izan da, 2023an baino % **0,28 txikiagoa**. Iaz 4.386.410 m³-koa izan zen.


Irunen eta Hondarribian etxeko ur-kontsumoak 2023arekin alderatuta pixka bat gora egin duen bitartean, bi udalerrietan etxekoa ez den kontsumoak jaitsiera txikia izan du. Ondorioz, 2024an fakturatutako kontsumoa, oro har, 12.000 m³ jaitsi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

	IRUN	HONDARRIBIA	2024 (m3)
Etxekoa	2.612.198	751.599	3.363.797
Etxekoa ez dena	725.137	285.298	1.010.535
GUZTIRA	3.337.335	1.036.997	4.374.332

2023




2024




Ur-kontsumoen banaketa sektoreka

2023




2024



3. Hornidura

Elordiko EUTEn 6,78 Hm³ ur tratatu da; hala ere, zenbait kontsumo kendu behar dira: EUTEaren funtzionamenduan kontsumitutakoa, hau da, 0,31 Hm³ iragazkien garbiketan, dekantagailuen eta saturagailuaren purgatzean, eta bestelako zerbitzu osagarrietan, batetik; bestetik, 0,12 Hm³, biltegietan izandako ur-galerari dagokiona. Ondorioz, sare nagusira banatutako batez besteko emaria 201 l/s-koa izan da (hau da, 6,34 Hm³). Goi-banaketan injeztatutako ur-edangarriaren kopurua %0,5 jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta, eta guztira 6,34 Hm³ -koa izan da.

Hornitutako ur kantitatea	6,78 Hm3
• Endarako urtegia	6,78 Hm3 (- %2,73)
• Jaizkibelgo ur-bilketak	0,0 Hm3
Altan banatutako ur kantitatea	6,34 Hm3 (- %0,5) (Depositu ezberdinetatik irteera
Q eco. Endarako ubidea mantentzeko emari ekologikoa	2,72 Hm3 (+ %1,9)
Altan banatutako batez besteko emaria	201 l/seg. (- %0,5)




4. Saneamendua

2024an, Atalerrekako araztegia (HUA) **10,35 Hm³ ur tratatu da** guztira, eta batez besteko emaria 327 l/s-koa izan da. Hala ere, ibaiadarraren emari guztia ez da osorik tratatu, **9,47 Hm³** ur baino ez da guztiz tratatu. Gainerako 0,88 Hm³-k, berriz, lehen mailako tratamendua jaso dute isuri aurretik, eurite-garaian tratatu beharreko ur-emariak tratamendu biologikorako onarpen-gaitasuna gaintitzen duenean. Gainera, azpimarratu behar da saneamendu-sistemak guztira 33,97 Hm³ ponpatu dituela.

2024an, 4.962 tona lohi deshidratatu ekoitzi dira, %17,5eko lehortasunarekin. Kopuru hori %6 txikiagoa da 2023koarekin alderatuta, orduan 5.295 tona kudeatu baitziren. Azken urteetan ohikoa den bezala, HUAn sortutako lohi guztiak nekazaritzara bideratu dira.

Saneamendu-sarean ponpatutako hondakin-ur kopurua	33,97 Hm3 (+%10,26)
Tratatutako ur kantitatea	10,35 Hm3 (+%4,3%) (327 l/s-ko batez besteko emaria)
Tratamendu osoa	9,47 Hm3
Lehen mailako tratamendua (euri-ura nagusiki)	0,88 Hm3
Lohien ekoizpena	4.962Tn (-%6,29)
Sortutako lohien helmuga	Nekazaritza



5. Energia


Ura eta energia elkarri estuki lotutako bi baliabide dira, urriak eta bizitzarako funtsezkoak. Txinzer-ek, sortu zenetik, energia-eraginkortasuneko eta jasangarritasuneko irizpideak mantentzen ditu. Ahalik eta energia-bolumen txikiena kontsumitzen saiatzen gara, teknikoki eraginkorrenak diren prozesuak jarraituz. Helburua ahalik eta gehien autohornitzea da, eskura dauden eta hainbat iturritatik (hidraulika, bioerregaiak, eguzki-energia) datozen energia berriztagarriak sortuz

Txinzerrek energia-kontsumo handia behar du bere jarduera osoa mantentzeko. Hori dela eta, energia berriztagarriaren ekoizpena lan-ildo estrategiko bihurtu da, erakundearen gainerako betebeharrak alde batera utzi gabe. 2024an, Txingudiko Zerbitzuak-ek **4.410 MWh energia berriztagarri** ekoitzi zituen, honela banatuta:

- **Hidroelektrikoa:** 3.435 MWh
- **Eguzki-energia:** 173 MWh
- **Mikrohidraulika:** 55 MWh
- **Biokonbustibleak:** 748 MWh

Azpimarratzekoa da azken urteetan planta fotovoltaikoetan egindako inbertsioen ondorioz, 2020an 30 megawatt energia fotovoltaiko genuela, eta 2024an, berriz, 173 megawattera iritsi garela, ekoizpena nabarmen handituz.

Ekoizpen horretatik, **1.260 MWh autokontsumorako** erabili ziren, eta gainerako 3.146 MWh sare elektriko orokorrera esportatu ziren, Txinzerrek biltegiatze-sistematik ez duelako. Esportazio horri esker, sare publikotik hartutako energia-zati esanguratsu bat konpentsatu ahal izan zen (guztira 3.473 MWh), eta horrek benetako kontsumoa 327 MWh-ra murriztu zuen. Aurrezpen hori zuzenean islatzen da herritarrei aplikatzen zaizkien tasetan.



6. Kalitate-kontrola

Ur-hornidurako eta saneamenduko zerbitzua emateko, beharrezkoa da zerbitzatutako uraren kalitatea bermatzea eta legeak ezartzen dituen kalitate-parametroen balioak betetzen direla zaintzea, bai hornitutako urentzat, bai hondakin-uren isurketentzat.

Ilido horretan, Txingudiko Zerbitzuak SA Txingudiko Mankomunitateko hornidura-sistemako kontsumoko uren kalitatea kontrolatzeko eta zaintzeko unitatea da 2002. urtetik.

Kontrol-jarduerak honako arlo hauetan zentratzen dira:

- Uraren kalitatearen kontrola eta jarraipena jatorrian
- Edangarri bihurtzeko eta arazteko tratamenduaren faseak kontrolatzea eta gainbegiratzea: instalaziora sartzea, tratamendua eta ur tratatua
- Banatutako uraren kalitate-kontrola
- Teleagintearen bidez instalatutako etengabeko neurgailuak gainbegiratzea, kalibratzea eta mantentzea.
- Industriako hondakin-uren isurketak kolektorera ikuskatzea eta kontrolatzea.
- Hondakin-urak isurtzen dituen ingurune hartzailearen kalitatearen jarraipena egitea.
- Unitate-sareen gainezkatzeen kontrola

2023aren hasieran **3/2023 Errege Dekretua onartu** zen, edateko uraren kalitatearen irizpide tekniko-sanitarioak, kontrola eta hornidura ezartzen dituen.

Azken araudiak hainbat parametro kontrolpean izatea eskatzen du, besteak beste, sistema-endokrinoaren aldatzaile gisa identifikatutako zenbait substantzia barne. 2024an konposatu berri horien lehen kontroletan lortutako emaitzek erakutsi dute substantzia horiek ez daudela Mankomunitateko edateko uretan, eta horrek hornidura-uraren kalitate bikaina berretsi du.



2024an egindako analisiak

	ANALISI KOP 2023	ANALISI KOP 2024
Ur bilketak	66	80
Ura edateko egoki bihurtzeko prozesuaren kontrola	2663	2477
Kontsumorako urak	146	143
EUTPko irteera	181	190
Deposituak	100	91
Obra berria	13	7
Saretik kanpoko iturriak	1	0
Atalerrekako HUA	2405	2188
Industria isuriak	38	23
Kolektorea	43	22
Bestelakoak	45	48
TOTAL	5.701	5.269

7. Kontsumoko uren kalitatea

Ohiko kontrolaz gain, 2000. urteaz geroztik Endarako urtegiaren egoera trofikoa kontrolatzen da, kontsumorako uren kalitatean eragina izan dezaketen fenomenoak identifikatzeko. Azterlanaren emaitzek, oro har, urtegiaren egoera trofiko ona adierazten dute, oligo-mesotrofikotzat jo baitaiteke, potentzial ekologiko on edo moderatuarekin.

Aurten urtegiak **hobekuntza** txiki bat izan du, aurreko urteekin alderatuta. Produktibitate algala murriztu egin da, eta urtean zehar nabarmendu egin dira urtegiko sedimentuen estratifikazio termikoko eta suntsiarazpeneko fenomenoak, urei burdina, manganesoa eta amonioa ematen baitiete.

Zebra-muskuiluaren presentzia detektatzeko Endaran instalatutako kontrol-laginketak lau aldiz behatu dira urtean zehar, eta **emaitza negatiboa** izan da kasu guztietan.

Tratamenduaren ezaugarriak

	URA GORDINA	TRATATU TAKO URA
Konduktibitatea (µS/cm)	66	161
pH	7,5	8,0
Uhertasuna (NTU)	0,69	0,1
Oxidakortasuna (mg O ₂ /l)	0,4	<0,2
Aluminioa (µg/l)	15	28
Burdina (µg/l)	50	<4
Manganesoa (µg/l)	15	<2

	UR GORDINA	TRATATU TAKO URA
Kaltzioaren gogortasuna (°F)	2.0	7.14
Alkalinotasuna (°F)	1,8	6,8
Langelier-en saturazio indizea	-1,7	-0,2
Kloro askea (mg/l)	-	0,45
Colif. Guztira (u.f.c./100 ml)	3154	0
E.Coli (u.f.c./100 ml)	4	0
Ur beltzetako estrepkokoak (u.f.c./100 ml)	2	0

Uraren kalitatearen kontrola hornidura-sarean

Analisi mota	EUTPko irteera	Deposituak	Banaketa-sarea	GUZT.	BEHARREZKO ANALISIAK
ANALISI OSOA	3	16	11	30	30
KONTROL-ANALISIA	0	69	38	107	92
KONTROL-ANALISIA (SETAP)	79	0	0	79	20
TXORROTA KONTROLATZEA	0	0	32	32	27
KONTROL ERRUTINARIOA	100	0	19	119	
URAREN EZAUGARRIAK	0	0	23	23	
ERRADIOAKTIBITATEA	1	0	1	2	2
ERAGIKETEN KONTROLA (DEP eta SAREA)	3	0	0	3	3
GUZTIRA	186	85	124	395	
KONTSUMITZEKO EGOKIAK	100%	100%	100%	100%	

Txingudiko Mankomunitateko hornidura-sarean hornitutako urak **kalitate ona** du; izan ere, aztertutako ia lagin guztiek kontsumorako gai kalifikazioa jaso dute, indarrean dagoen araudian ezarritako irizpideen arabera. Barne-sareetako laginketa-punturen batean ez-betetze puntualak gertatu dira, eroanbide pribatuetako metalen presentziaren ondorioz.

Kloroari dagokionez, sarean egindako kontrol gehienetan **kloroaren balioa 0.2 eta 1 mg/l arteko tarte optimoan dago, hornitutako ura behar bezala desinfektatzen dela ziurtatzeko.**

Aztertutako ur-lagin guztiek 2/2023 Errege Dekretuan tratamendu-irteerako **uhertasunerako** eta banaketa-sarerako eta **erregulazio-biltegiatarako ezarritako NTU 0,3 eta 4 NTUko gida-balioa baino uhertasun txikiagoa** dute, hurrenez hurren.

Kloroaren presentzia sarean

	Analisi kop.	Bataz besteko balioa	0 eta 0,2 bitarte		0,2 eta 0,5 bitarte		0,5 eta 1 bitarte		1mg/l-tik gora	
			Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
EUTPko sarrera	227	0,57	0	0%	26	11 %	201	88%	0	0%
Deposituak	76	0,54	0	0%	12	16 %	64	84%	0	0%
Banaketa sarea	118	0,45	5	4.2%	52	44 %	61	52%	1	0%

Uhertasuna

	Analisi kop.	Bataz besteko balioa	<0.3NTU		>0.3 NTU	
			Kop.	%	Kop.	%
EUTPko sarrera	226	<0.1	226	100%	0	0%
Deposituak	76	<0.1	98	100%	0	0%
Banaketa sarea	118	<0.1	117	99%	1	1%


8. Hondakin-uren kalitatea

Atalerrekako HUA abian jarri zenetik, honako jarduera hauek egiten dira HUAren laborategian:

- **Araztegiko arazketa-prozesuaren kontrola**
- **HUAN sortutako lohiak kontrolatzea**
- **Industria-isurketen analisisa**
- **Hondakin-uren isurketek eragindako lurrazaleko uren kalitatearen jarraipena egitea.**




	SARRERA	IRTEERA
Konduktibitatea (µS/cm)	2976	2912
pH	7,5	7,6
Uhertasuna (NTU)	163	12
Solidoak igerian (mg/l)	246	34
DQO (mg O2/l)	397	79
DBO5 (mg O2/l)	170	17
Nitratoa (mg N/l)	-	5
Amoniako nitrogenoa (mg N/l)	32	28
Fosforoa guztira (mg P/l)	6	3
Kloruroak (mg/l)	682	708
Sulfatoak (mg/l)	135	132
Burdina (mg/l)	-	0.2
Manganesoa (mg/l)	-	0.06
Kobrea (mg/l)	-	<0.025
Zinka (mg/l)	-	<0.025
Kadmioa (mg/l)	-	<0.1
Kromoa (mg/l)	-	<0.01
Nikela (mg/l)	-	<0.01
Beruna (mg/l)	-	<0.01
Merkurioa (mg/l)	-	<0.001



Atalerrekan hiriko hondakin-urak isurtzen dituen ingurune hartzailearen kalitatea zaintzeko eta jarraipena egiteko Planaren esparruan egindako laginketa-kanpainen emaitzen arabera, isuriek eragindako inpaktua, nagusiki, isurketa-puntutik hurbil dauden laginketa-estazioetan hauteman da. Inpaktua kutsadura mikrobiologikoaren balioetan, amonio-kontzentrazioan eta itsas hondoetan bizi diren komunitateen egituran islatzen da. Horrek, kasu batzuetan, ingurumen-egoeraren balorazioa Moderatu mailara murriztea eragin duen arren, ez dio eragin azterketa-eremuaren balorazio orokorrari, zeinetan PCQI eta CFR indizeen arabera Oso Ona sailkapena lortu den.

2022 eta 2024 bitartean, laginketa-estazioen ingurumen-kalitatea hobetzeko joera orokorra ikusi da, eta isurketa-puntutik hurbilen dauden estazioetan susperraldi nabarmena hauteman da. Gainera, kontrol estazioen eta isurketek eragindako estazioen arteko ingurumen-kalitatearen aldeak murriztu egin dira, eta horrek adierazten du aztertutako eremuen egoera ekologikoak bilakaera positiboa izan duela.



Lortutako emaitzak Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan (2015-2021 berrikuspena) ezarritako erreferentzia-baldintzekin alderatuta, ur-masaren egoera "ona" edo "oso ona" da aztertutako parametroetarako.

Arazketa-prozesuan sortutako lohiari dagokionez, metalen eduki txikia eta nitrogeno eta fosforo edukia oso egokiak dira nekazaritzan erabiltzeko.

9. Euri-garaietako gainezkatzeen kalitatea

Azken urteotan, sare unitarioen **gainezkatzeak kontrolatzeko programa bat jarri da abian**. Horretarako, saneamendu-sarean **kontrol-estazioak jarri dira, emariak kuantifikatzeko sistemekin** eta solido esekien sistemekin hornituta, gertakari horien magnitudea ebaluatzeko, bereziki udan, gainezkatze horien eraginak bainatzeko uren kalitatean eragina izan dezakeenean.

Kontrol-sare horrek emandako informazioari esker, gainera, **sistemaren funtzionamenduan arazoak antzeman daitezke, baita lehentasunak ezarri ere sareak hobetzeko obren plangintzan**, gainezkatze-gertakarien kopurua murrizteko eta ingurumena babesteko.



10. Control de vertidos industriales

Isurketak kontrolatzeko arloaren jarduerak honako puntu hauetan zentratzen dira:

- Isurketa baimentzeko espedienteak izapidetzea, isurketen titularrei egindako errekerimenduak, etab.
- Isurtzeko baimena duten enpresa-jardueretatik eratorritako isurketen ikuskapen teknikoak eta laginak hartzea
- Saneamendu-sarearen kontrola

2024an hiru isurketa-baimen berri izapidetu dira.

16 bisita egin dira isurketa industrialen titular diren enpresetara, isurketa horiek kontrolatzeko. Enpresentzako zuzeneko kontrol horretaz gain, aldian-aldian kontrol bat egiten da industriadetik datorren kolektorean, gerta daitezkeen isurketa irregularrak antzemateko.

Ikuskapen-lan horien ondorioz, **45** isurketa-lagin aztertu dira, baina ez da gorabehera esanguratsurik erregistratu.



11. Obrak eta inbertsioak instalakuntzetan

Inbertsio nagusiak obretan eta instalakuntzetan

ERRANDONEAKO DEPOSITUA	966.207,42 €
JENDAURREKO ARRETA BULEGOA BERRITZEA	274.239,47 €
HORNIDURA SAREAK BERRITZEA *	675.167,37 €
SANEAMENDU SAREAK BERRITZEA **	385.110,37 €
BESTE OBRA TXIKIAGO BATZUK	270.823,52 €
GUZTIRA	2.571.548,52 €

*

HORNIDURA SAREAK BERRITZEA	675.167,37 €
GAZTAINONDO KALEA BERRURBANIZATZEA (IRUN)	14.065,99 €
SANTIAGO KALEA BERRURBANIZATZEA (HONDARRIBIA)	46.902,38 €
POXPOLOGILE KALEA BERRURBANIZATZEA (IRUN)	39.439,31 €
JAIZKIBEL ETORBIDEKO BANAKETA-SAREA BERRITZEA (HONDARRIBIA)	339.339,21 €
MEATZARI KALEKO BANAKETA-SAREA BERRITZEA (IRUN)	123.398,15 €
SAN TELMO INGURUKO BANAKETA-SAREA BERRITZEA (HONDARRIBIA)	107.292,33 €
BESTE TXIKIAGO BATZUK	4.730,00 €

**

SANEAMENDU SAREAK BERRITZEA	385.110,37 €
POXPOLOGILE KALEA BERRURBANIZATZEA (IRUN)	108.774,27 €
SANTIAGO KALEA KALEA BERRURBANIZATZEA (HONDARRIBIA)	167.522,24 €
SANEAMENDUA LOPEZ BECERRA KALEAN	43.243,38 €
ZANGARIK GABEKO ERREHABILITAZIOA	9.900,00 €
EHIERA PLAZA	13.923,87 €
AMUTEKO PONPAKETA	21.667,30 €
BESTE TXIKIAGO BATZUK	20.079,31 €

11. Obrak

Obra nagusiak

Errandoneako depositua berreraikitzea

2024ko bigarren seihilekoan, Errandoneako ur-biltegia berreraikitze lanak hasi ziren, 70eko hamarkadan eraikitako ur-biltegiak birgaitzeko planaren eta 2017-2025 aldirako Inbertsio Planaren baitan.

Errandoneako depositua izen bereko baserriaren ondoan dago kokatuta, Hondarribian, eta bi fasetan eraiki zen: lehenengo fasean, 70eko hamarkadaren hasieran, Iparragirre Garaiko eta Beheko biltegiak eraiki ziren. Bigarren fasean, 90eko hamarkadaren amaieran, edukiera bikoiztu egin zen.

Berrogeita hamar urte baino gehiago funtzionamenduan eman ondoren, denboraren joanak gabezia batzuk eragin ditu, eta garrantzitsua da berritzea. Azterketa geotekniko eta estruktural sakon baten ondoren, erabaki da depositua berreraikitzea dela konponbide bideragarriena, izan ere, egungo egitura baldintzak direla-eta birgaitze soil bat ez da nahikoa.

Obrek egungo egitura erabat eraistea eta hormigoi armatuzko ur-biltegi berri bat eraikitzea aurreikusten dute, egungo indusketa aprobetxatuz eta 4.500 m³-ko edukiera mantenduz. Gainera, instalazio berriak teknologia aurreratua izango du bai balbulatan, bai kontrol- eta segurtasun-sistemetan. Diseinu jasangarriaren baitan, sarreran mikroturbina bat instalatuko da, sartzen den emariaren presioa erregulatzeaz gain, energia berriztagarria sortzeko.



11. Obrak

Obra nagusiak

Hondarribiko erdigunera doan hodi nagusia ordeztzeko lanak, Jaizkibel Etorbidean

Errandoneako ur-biltegia Hondarribiko erdigunearekin lotzen duen arteria nagusia Jaizkibel Etorbidean zehar luzatzen da, Harresilandaraino, Iturriberriko biribilgunera arte. 400 eta 300mm arteko fibrozementuzko hodi horrek 50 urte baino gehiago ditu, eta ur hornidura seguruagoa eta eraginkorragoa bermatzeko berritu da.

Aurreko faseetan, Hondarribiko saihesbideko eta Muliatego urbanizazioaren obrak baliatuta, azpiegitura honen zati bat jada ordezkatu zen burdinurtuzko hodiekin, Katalina Erausoreko bidegurutzeraino. Orain, berrikuntza hori osatzeko, burdinurtu harikorreko hodiak instalatu dira gainerako 520 metroetan, Tximista kaleraino.

Obrak baliatuz, saneamendu-sarean eta inguruko behe-banaketako hoditerian ere hobekuntzak egiten ari dira. Besteak beste, diametro txikiagoko hodien berritzea eta 14 etxebizitzatako hornidura-konexioen eguneraketa, azpiegituraren zerbitzua eta eraginkortasuna optimizatzeko.



11. Obrak

Edateko ura banatzeko sareak berritzea

Urtero bezala, ura banatzeko sareak berritzeko lanak egin dira arazoak, gabeziak eta ihesak antzeman diren eremuetan. Meatzari kalean, Irunen, fibrozementuzko 340 metro hodi ordeztu dira eta etxeko sei konexio berritu dira. Era berean, San Telmoko deposituaren inguruan, beste 590 metro hodi aldatu dira. Gainera, esku-hartze txikiak egin dira Gaztainondo eta Plaiaundi eremuetan, banaketa sarea hobetuz. Eraberritzeak ere egin dira udal-lanekin koordinatuta, eta nabarmentzekoak dira Irungo Poxpologile kalean eta Hondarribiko Santiago kalean egindakoak.

Jarduera horiei esker, Jaizkibel etorbideko sarea berritzearekin batera, fibrozementuzko 2.000 metro hodi baino gehiago kendu dira, inguruko ur-hornidurako azpiegitura modernizatuz eta optimizatuz.




11. Obrak

Hiriko saneamendu eta drainatze-sareak berritzea

Urteko Inbertsio Planak eskualdeko saneamendu sarea etengabe berritzea eta hobetzea aurreikusten du. Jarduketa horien barruan, López Becerraren atzealdean eta Eihera plazan egindako esku-hartzeak egin dira, eta berrikuntza txikiak egin dira, lubakirik gabeko teknologiak erabiliz obren inpaktua minimizatzeko.

Era berean, udal proiektuekin koordinatuta, sistema bereizlea berritzeko eta ezartzeko lanak egin dira, eta Irungo Poxpologile kalean eta Hondarribiko Santiago kalean egindako esku-hartzeak nabarmendu behar dira, saneamendu sistema modernizatzen eta efizientea izaten laguntzeko.



11. Obrak

Juncal kaleko Arreta Bulegoa birgaitzea

Obrak bulegoa Txinzerren jardueraren egungo beharretara egokitzeko egin dira, bai eta irisgarritasunaren eta energia-eraginkortasunaren arloan indarrean dagoen araudira egokitzeko ere.

Erreforma horren bidez, honako helburu hauek lortu nahi izan dira:


- Herritarrekiko arreta hobetzea, funtzio horretarako espazioen arteko pribatutasuna eta diskrezioa ziurtatuz.
- Guneen artean gardentasun eta komunikazio bisual handiagoa sustatzea, eremu pribatuenean intimitatea arriskuan jarri gabe.
- Komunak erabiltzaile motaren arabera bereiztea (publikoa eta enplegatuak).
- Bulegoaren akustika hobetzea, erreberberazioa kontrolatuz eta espazioen artean beharrezko isolamendua bermatuz.
- Kaletik gela guztietarako irisgarritasuna optimizatzea.
- Efizientzia energetikoa hobetzea, itxituretan isolamendu termikoak txertatuz eta energia gehiago aurrezten laguntzen duten klimatizazio eta aireztapen sistemak instalatuz.
- Argi naturala ahalik eta gehien aprobetxatzea, itxitura transluzituak erabiliz.
- Espazioen diseinu eguneratua lortzea.
- Hondakin organikoak poltsak saltzeko makina harrerara ahalik eta gehien hurbiltzea, erabiltzaileen zalantzei hobeto erantzuteko.

253.062 €

Proiektuaren aurrekontua

6 hilabete

Lanen iraupena



12. Sare eta obretako jakinarazpen eta gorabeherak

	2020	2021	2022	2023	2024
Hornidura sarea	406	472	403	430	375
Saneamendu sarea	457	520	473	443	538
Informazio eskaera	72	46	37	47	54
Eraikuntza	9	24	0	15	20
GUZTIRA	944	1062	926	935	987

	2020	2021	2022	2023	2024
Hornidura sarea	406	472	403	430	375
Iragazkia (abto)	7	1	1	4	7
Sareta (abto)	10	16	19	22	16
Beste batzuk (abto)	30	46	32	32	54
Fuga (abto)	74	96	66	86	87
Hidrantea/ureztatze-ahoa	31	24	31	41	28
Hodi haustura (abto)	31	24	11	9	16
Hartunea (abto)	5	2	7	1	2
Hornikuntza	218	263	236	235	165
Saneamendu sarea	457	520	473	443	538
Beste batzuk	60	51	52	47	67
Hodi haustura (sto)		6	6	2	2
Kutxatila, hustubidea, sareta	198	239	211	184	256
Ihesak	20	30	16	26	19
Kamioia (pribatua)		3	10	2	2
Buxaketa	44	39	42	41	23
Hobi garbiketa	97	91	86	88	96
Iragazkia (sto)	25	39	31	40	56
Usain txarra	13	22	19	13	17
Informazio eskaera	72	46	37	47	54
Sareak	70	46	36	47	54
Beste batzuk (inf)					
Presioaren datuak	2				
Obrak	9	24		15	20
GUZTIRA	944	1.062	926	935	987

06

Hondakinak



1. Mugarri garrantzitsuak

1.1. Hondakinak kudeatzeko ordenantza berria

Helburua da 2001etik indarrean dagoen Hiri Hondakin Solidoen Kudeaketari buruzko Ordenantza eguneratzea, egungo legezko eskakizunetara egokituz eta hondakinen bereizketa eta birziklapena sustatuz. 2024ko abuztuan, kontsulta publikorako aldi bat ireki zen, Bidasoa Behereko eskualdeko eragileek eta herritarrek iradokizunak aurkeztu ahal izan zitzaizten.

Txingudiko Mankomunitateko hondakinen ordenantza berriak kudeaketa eraginkorra bermatzeko arau argi eta zorrotzak ezartzen ditu. Debekatuta dago birziklagarriak diren hondakinak errefusaren ontzira botatzea, eta hondakinen bereizketa eta bilketa prozedurak arautzen dira, bai hiriguneetan, bai industrialdeetan eta baita ekitaldi publikoetan ere.

Era berean, kontrol eta zehapen neurriak indartzen dira, hondakinen kudeaketak jasangarritasun eta kalitate estandar gorenak betetzen dituela bermatuz.


Prozesu irekia eta parte hartzailea

Ordenantza berriaren lanketak ikuspegi parte hartzailea izan du, eskualdeko benetako beharrak islatzen dituela bermatzeko. Mankomunitateak hasierako onarpena eman ondoren, dokumentua jendaurrean jarri zen, herritarrek alegazioak aurkez zitzaizten behin betiko onartu aurretik.

Ordenantza berriaren helburu nagusiak

- 7/2022 Legean ezarritako betebeharrak betetzea, hondakinak biltzeko eta kudeatzeko arau berriei erantzunez.
- Herritarren legezko betebeharrak argitzea, egungo araudiarekin bat eginez.
- Hiri-hondakin solidoen frakzio guztiak egoki definitu eta arautzea, gaikako bilketa indartzeko.
- Garbiguneak erabiltzeko araubidea jaso eta arautzea.
- Betebeharren ez-betetzeak zuzentzeko zehapen-araubide egokia ezartzea, eraginkortasuna bermatzeko.

Jasotako iradokizunak aztertu ondoren, ordenantzaren lehen zirriborroa prestatu da. 2025ean, Mankomunitateak hasierako onarpena emango dio, eta, ondoren, jendaurrean jarriko da, herritarrek testuari alegazioak egiteko aukera izan dezaten.




1.2. Materia organikoaren edukiontzia berritzea

Hondakin organikoen kudeaketa hobetzeko eta herritarrei kalitate handiagoko zerbitzua eskaintzeko, Txingudiko Zerbitzueak-ek Irungo eta Hondarribiko materia organikoaren edukiontzi guztiak berritu ditu. Egitasmo hau Eusko Jaurlaritzaren eta Europar Batasunaren 217.350 euroko diru-laguntzari esker gauzatu da, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan.

Edukiontzi berriek diseinu hobetua dute eta estetika uniforme gainerako edukiontziekin; aurrekoak baino baxuagoak dira eta zarata gutxiago egiten dute erabiltzen diren bitartean, material ez-metalikoekin eginda daudelako. Korrosioarekiko erresistenteagoak dira, eta horrek haien bizitza baliagarria luzatzeaz gain, mantentze-kostuak nabarmen murrizten ditu. Era berean, sarraila-sistema eguneratu da, eguneroko erabilera-informazioa erregistratzeko aukera ematen duena, eta, horri esker, zerbitzua modu eraginkorragoan kudeatu ahal izango da.

Sistema berriak poltsa konpostagarriak saltzeko makinak berritzeko aukera ere emango du, eta 2025ean bost unitate gehiago jartzea aurreikusten da.

Edukiontziak telefono mugikorraren bidez irekitzea ahalbidetuko duen sistema bat ezartzeko lanean ere ari da Txinzer, herritarrentzako esperientzia are gehiago errazteko.



1.3. Landa-eremuetako eta Hondarribiko Alde Zaedukiontzien berritzea

rungo landaguneetan, 1.700 litroko edukiontzi zaharren orde, atzeko kargako modelo berriak jarri dira, 1.000 litroko edukierarekin. Eguneratze honek bilketa zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzeko beharrari erantzuten dio, kamioientzat zein langileentzat bolumen handiko edukiontzien sortzen zituzten arazoak saihestuz.

Guztira, 20 bilketa-gune jarri dira, 13 paper-edukiontzi, 13 ontzi-edukiontzi eta errefusako 34 edukiontzi.

Hondarribiko Alde Zaharrean ere edukiontziak ordezkatu dira. Berritze horri esker, bilketa guneak lautik bostera igo dira, guztira 31 edukiontzirekin: 8 ontzi-edukiontzi, 7 paper edukiontzi, materia organikoko 5 edukiontzi, 5 beira edukiontzi eta 11 errefusa edukiontzi.



1.4. Bilketa-kamioi berriak

risteko zailak diren gunetan edo espazio-mugak dituzten eremuetan hondakin-bilketa optimizatzeko, Txingudiko Zerbitzuak-ek hondakinak biltzeko **bi kamioi berri** erosi ditu, bereziki landa-eremuetan eta Hondarribiko Alde Zaharrean edukiontziak jasotzeko. Inbertsio honekin, Txinzerrek bere zerbitzuak etengabe hobetzeko duen konpromisoa berresten du, hondakinen kudeaketan efizientzia operatiboa eta jasangarritasuna sustatzen dituzten soluzioen alde eginez.

Kamioi berriak aurrekoak baino txikiagoak eta maniobragarriagoak dira, 8 metro kubikoko edukiera dute eta berariaz diseinatu dira eremu horietan bilketa eraginkorragoa izateko.

Ibilgailuek pisatzeko sistema integratua dute, bildutako edukiontzi bakoitzaren pisua erregistratzeko aukera ematen duena. Gainera, bilketa-ibilbideen kudeaketa errazteko teknologia aurreratuarekin hornituta daude.

Teknologia horri esker, bilketa-ibilbideak optimizatu ahal izango dira, edukiontzien kopuruaren eta eremu bakoitzean behar den bilketa-maiztasunaren arabera egokituz.



1.5. Hondakinak kudeatzeko eta kaleak garbitzeko lizitazioa berritzea

Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitateak 2024an abiatu du Irunen eta Hondarribian hiri-hondakin solidoak kudeatzeko eta kaleak garbitzeko kontratua esleitzeko lizitazio-prozesu publikoa. Kontratu berri honek bost urte baino gehiago iraungo du eta 2025eko otsailaren 1ean jarriko da indarrean, egungo kontratua amaitzean.

59,6 milioi euroko gehieneko aurrekontuarekin, lizitazioak zerbitzuaren jarraitutasuna eta hobekuntza bermatu nahi ditu, jasangarritasuna, efizientzia eta gardentasuna lehenetsiz. Kontratuak funtsezko zerbitzuak barne hartzen ditu, hala nola:

HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK

- Hiri-eremuko hondakinen bilketa.
- Sortzaile handien hondakinen bilketa.
- Industrialdeetako hondakinen bilketa.
- Garbiguneen kudeaketa: erabiltzaileei arreta ematea eta bainuontziak hustea.
- Edukiontzien instalazioa, garbiketa eta mantentzea.

KALE GARBIKETA

- Eskuzko ekorketa eta ekorketa mekanikoa.
- Eskuzko baldeoa eta baldeo mekanikoa.
- Pintadak, pankartak eta kartelak kentzea.
- Berehalako esku-hartze brigada Irunen.
- Espaloiak eta plazak garbitzeko eta desugertzeko plana.
- Merkataritza-guneen eta puntu beltzen garbiketa.
- Izozte- eta elurte-plana.
- Asteko azoka txikia eta eremu berezien garbiketa.
- Hiri-altzarien hidropresio bidezko garbiketa.
- Industrialdeen garbiketa.
- Zakarrontzien instalazioa eta mantentzea, baita belarrak kentzea ere.

Kontratuak, gainera, zerbitzuen antolaketa, kudeaketa eta kontrola barne hartzen ditu, baita hiri-hondakin solidoak biltzeko eta kaleak garbitzeko ibilgailuen mantentzea ere.

Kontratu berriaren helburua ez da soilik zerbitzuen jarraitutasuna bermatzea, baizik eta iraunkortasunaren, efizientziaren eta kontrolaren arloko erronka berriei erantzuteko hobekuntza esanguratsuak egitea ere.

- **Optimizazio teknologikoa:** Teknologia aurreratuen integrazioari esker, zerbitzuen antolaketa eta kontrola optimizatuko dira. Bilketa- eta garbiketa-zerbitzu bakoitzak kudeaketa-terminalak izango ditu, eta horrek denbora errealean jarraipena egiteko aukera emango du. Hobekuntza horrek intzidentzien aurrean erantzuteko gaitasuna handituko du, erabakiak hartzea erraztuko du eta efizientzia operatiboa hobetuko du, plangintza zehatzagoa eta erabiltzaileen beharretara egokitua ahalbidetuz.
- **Jasangarritasunarekiko konpromisoa:** Kontratua bat dator Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 7/2022 Legearekin, zeinak 2030erako gaikako bilketaren %70era iristea helburu duen. Helburu hori lortzeko, gaikako bilketaren maiztasuna areagotuko da, batez ere hondakinen sortzaile handien kasuan, hala nola saltokietan eta industrietan, eta, aldi berean, gainerako zatikiaren bilketa-maiztasuna murriztuko da, hondakinen kudeaketa arduratsuagoa eta birziklatzera bideratuagoa sustatuz. Gainera, hondakinak gaika biltzeko eta hondakinak sortzeagatik ordaintzeko sistemetan berrikuntzak ezarriko dira, herritarrek baliabideen erabilera arduratsuagoa izan dezaten bultzatzeko. Neurri horiek jasangarritasunari laguntzeaz gain, kostuak murrizten eta efizientzia operatiboa handitzen ere lagunduko dute.

- **Gardentasuna eta kontrola:** Kudeaketa-sistema aurreratuen integrazioari esker, zerbitzuen exekuzioan gardentasun handiagoa lortuko da. Denbora errealeko monitorizazioak aukera emango du bai Mankomunitateak bai herritarrek une oro zerbitzuen egoera ezagutzeko, eta horrek gainbegiratze eta kontrol eraginkorrak ahalbidetuko ditu. Hori funtsezkoa da kontratuan ezarritako kalitate- eta eraginkortasun-estandar altuak betetzen direla bermatzeko.

Kudeaketa-eredu eraginkorrak eta jasangarriago baterantz

Lizitazio berri honekin, Txingudiko Zerbitzuak-ek berrikuntzarekin, jasangarritasunarekin eta etengabeko hobekuntzarekin duen konpromisoa berresten dute, zerbitzu eraginkorra, gardena eta Irun eta Hondarribiko herritarren beharretara egokitua ziurtatuz.



2. Tarifen politika 2024

Hondakinen kudeaketari dagozkion tasei eta tarifei dagokienez, ondorengo aldaketak egin dira 2024ko ekitaldirako:

- %5eko igoera **gaikako bilketari atxikitako etxebizitzetan** ezarritako tarifyan.
- %10ko igoera **etxekoak ez diren kontratuetan, hondakin-sortzaile handientzat** eta hondakinen bereizketan behar bezala ez parte hartzeagatik **"ez-jasangarri"** gisa katalogatutako **etxebizitzetan**.

Tarifa soziala

Tarifa arruntaren % 50ari dagokion tarifa soziala mantentzen da ezarritako baldintzak betetzen dituzten familientzat.



Hondakinen tarifaren bilakaera

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
Etxe jasangarrien tarifa	143,08 €	141,68 €	136,00 €	131,96 €	136,93 €	134,12 €	134,12 €	134,12 €	134,12 €	134,12 €	134,12€	140,83 €	147,92 €
Gainontzeko etxeko tarifak		143,09 €	150,26 €	158,44 €	190,13 €	190,13 €	190,13 €	197,38 €	197,38 €	212,18 €	221,72 €	243,9 €	272,93 €

3. Adierazle orokorrak

BIRZIKATZE TASA	% 57,11 (2023an baino %1,2 hobea)
SORTUTAKO HONDAKINAK	0,92 kg/biz./eguneko (+ %1,1)
EDUKIONTZI URDINEAN BILDUTAKO PAPERAK	50,18 kg/biz./eguneko (laz baino %1,7 gehiago)
EDUKIONTZI HORIAN BILDUTAKO ONTZIAK	22,62 kg/biz./eguneko (+ %4,1)
BILDUTAKO BEIRA (IGLU BERDEA + OSTALARITZA)	32,82 kg/biz./eguneko (+ %3,99)
EDUKIONTZI MARROIAN BILDUTAKO HONDAKIN ORGANIKOAK	32,18 kg/hab/año (+ 0,88%)

2024ko gertaera azpimarragarriena **birziklapen-tasaren igoera** izan da, %**55,91**tik %**57,11**ra.

Gaikako bilketarako lau edukiontzi nagusiek (materia organikoa, ontzia-arinak, papera eta beira) ekarpena handitu dute 2023arekin alderatuta.

Hiri eremuan, errefusak %2,24ko igoera izan du, eta 2022ko kopuruaren antzera mantendu da, 16.765 tonatik 17.142 tonara igaroz. Hala ere, errefusaren tona kopurua %1,41 jaitsi da 2024an, 20.370 tonara arte.

Kudeatutako hondakin guztien kopurua ia bere horretan mantendu da, %0,48ko jaitsiera txikiarekin. 47.755 tona bildu da guztira.

*Hiri-eremuko edukiontzi-irletan bildutako hondakinei buruzko datuak

Materia organikoa

Edukiontzien eta sorgailu handien atez ateko bilketaren bidez bildutako materia organikoaren bolumena pixka bat handitu da aurreko urtearekin alderatuta. Guztira **3.504 Tn jaso dira**, eta iaz, berriz, 3.465 Tn.

Edukiontzi marroiko materia organikoaren bilketa % **1,02 igo** da iazko emaitzarekin alderatuta, eta sorgailu handietarako bilketa % **1,4** igo da.

Inausketa eta lorezaintzako hondakinak, bai Irungo eta Hondarribiko Lorezaintzako udal-zerbitzuetakoak, bai beren lursail partikularretatik Garbiguneetara eraman dituzten herritarrenak, % **28,14 handitu** dira, eta **2.997 tona** bildu da guztira; iaz, 2.339 tona.

Balantze globalean, 6.492 tona izatetik 6.7.168 tona izatera igaro da 2024an (% **10,42ko igoera**).

Papera eta kartoia

Bide publikoko edukiontzi urdinetan paperaren eta kartoiaren gaikako bilketa % **3,36 igo** da iazko datuekin alderatuta. Hala ere, kartoi komertzialaren bilketa % 0,3 jaitsi da, industrialdeetako bilketa % 0,97 jaitsi da eta kudeatzaile baimenduen bidez sortzaile handiei egindako bilketa % 38 baino gehiago jaitsi da. Kontzeptu guztiak barne hartuta, 4.875 Tn jaso dira guztira, hau da, **60,21 Kg biztanleko eta urteko**.

Beira

2024an, beira bilketa % 6,44 igo da igluetan. Bide publikoan dauden igluak partikularrek zein ostalaritza-sektoreak erabiltzen dituzte. Txingudiko Zerbitzuakek, halaber, zuzenean egiten du atez ateko bilketa zerbitzua bi hirietako oinezkoentzako gunetan eta hirigune historikoetan kokatutako ostalaritza-establezimenduetan. Kasu horretan, **287,80 tona** bildu dira, aurreko urtean baino % **11,77 gutxiago**. Aurreko urteetan bezala, Ecovidrio enpresa arduratu da bide publikoan jarritako iglu edukiontziak biltzeaz. Guztira, **biztanleko 32,82 kg beira** bildu dira.

Ontzi arinak

2024an bide publikoko edukiontzietako ontzien bilketak % **4,42ko igoera** nabarmena izan du 2023arekin alderatuta; **1.764 tona** ontzi bildu dira. Ontzi sortzaile handiei **68,5 tona** bildu zaizkie, iazko datuaren antzera. Ratioa zertxobait igo da: **22,62 kg** jaso da **biztanleko**.

Errefusa

Bide publikoko edukiontzietan bildutako gainerako hondakinak %**2,24ko gorakada** izan du; **16.765 tonatik 17.142 tonara** hazi da 2024an.

Beste birziklagarriak (Tn)

Gainerako hondakin birziklagarriek bezala, beheranzko emaitzak sortu dituzte. Hona hemen adierazle nagusiak:

	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Pilak	10,55	13,00	8,25	7,84	7	6,8
Ehunak	277,50	261,20	249,25	240	244	252,58
Gailu elektriko- elektronikoak	345,40	333,10	192,31	124,48	115	100,07
Etxeko hondakin arriskutsuak	61,10	64,50	64,00	59,89	59	71,71
Etxeko olioak	38,80	41,80	38,84	35,23	33	33,05

Garbiguneetan jasotako hondakinak (Kg)

	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Zaborra	5.080.440	4.198.332	4.112.120	3.903.705	4.270.220	4.235.840
Plastikoak	453.422	302.980	296.700	294.500	296.080	405.720
Inausketa	2.795.110	2.698.810	2.585.970	1.966.440	2.339.280	2.997.470
Txatarra	205.135	214.580	251.730	151.630	57.020	108.145
Pneumatikoak	31.877	26.570	26.340	22.060	18.940	15.960
Pilak	5.899	5.109	8.257	7.845	6.686	6.876
Hondakin arriskutsuak	59.529	62.873	64.004	59.890	58.864	71.711
Hozkailuak+gaes+paes	345.466	333.157	192.316	124.483	115.462	100.079
Lanpara fluoreszenteak	1.399	1.690	1.644	1.420	1.857	1.893

Hondakin balorizatuak

Hondakin balorizatuak Atalerrekako araztegiko hondakin-uren tratamendutik datoz. Materia organikoan, nitrogenoan eta fosforoan duten edukiagatik, hondakin horiek material aprobetxagarria dira nekazaritzarako lurzoruetan. Guztira, **4.961 tona lohi kudeatu dira** uren arazketatik, aurreko urtean baino % **6,30 gutxiago**. Iaz bezala, lohi gehiena modu deshidratatuan kudeatu da, % 20ko hezetasunarekin, eta nekazaritzara bideratzen da oso-osorik.

Eraikuntza eta eraispenetako hondakinak

Hondakin mota hori eraikuntzaren sektoreetan lan egiten duten gremioek eta obra zibileko zein eraikuntzako kontratista industrialek sortzen dute. 2024an % **1,02ko jaitsiera** izan da aurreko urtearekin alderatuta, eta **4.668 tona** jaso dira (2023an 4.716 tona bildu ziren). Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak erakundeak, urteko memoria honetan, Araso eta Akartegiko garbiguneen bidez kudeatu diren hondakinak baino ez ditu aurkezten. Bertan, obra txikietako materialak uzten dira. Obra handiak egiten dituztenak eraikuntza-enpresak dira, eta beren hondakinak dagokien kudeatzaileari eramaten dizkiote.



4. BidaSOS 2030

2022an birziklapen tasak behera egin bazuen ere, 2023an BidaSOS 2030 estrategia ezarri ondoren, azken bi urteetan birziklapena sustatzea lortu dugu. Horri esker, tasa **%57**ra igo da, eta 2022an izandako beheranzko joera alderantzikatu dugu.

2019	2020	2021	2022	2023	2024
% 53,33	% 54,22	% 55,03	% 53,94	% 55,91	% 57,11

Europako legediak 2025erako %55eko birziklatze tasa eskatzen du, 2030erako %60koa eta 2035erako %65ekoa. Hala ere, Foru Aldundiak asmo handiagoko helburuak ezarri ditu, 2030erako %70eko tasa finkatuz.

TXINZER-ek 2025erako Europako legediak eskatzen duen %55eko tasa betetzen duen arren, BidaSOS 2030 strategiaren esparruan lanean jarraituko da ezarritako hurrengo mugarriak lortzeko. Horretarako, estrategiak honako zutabe hauetan oinarritzen jarraituko du:

Gizarte-laguntzaren hurbiltasuna bilatzea: bulego mugikor baten bidez, organikoko edukiontzian alta eman eta oinarrizko izapideak egin ahal izango dira.

Ingurumen-hezkuntza eta sentsibilizaziorako komunikazioa: ingurumen-hezitzaile talde batek inguruko negozio eta etxe guztiak bisitatuko ditu, herritarrei behar bezala birziklatzeak dituen abantailen eta horrek ingurumenari dakarkionaren berri emateko.

Datuen bidez objektiboki zuzendutako estrategia: maila, talde, auzo, hiri eta eskualde desberdinetako datuen panel bat, horien bilakaera ikusteko eta horien arabera garatu beharreko ekintzak doitzeko.

BIDASOS²⁰³⁰

Ezarpen eremuak 2024an

- Santiago Beraun, Irungo Alde Zaharra, Dunboa, Arbes y Meaka (apirilak 29 - ekainak 15)
- Larreaundi, Olaberria, Behobia eta Artia (irailak 16 - urriak 26)
- Hondarribiko Alde Zaharra eta Portua (urriak 29 - azaroak 26)

Emitza aipagarriak:

Santiago Beraun, Irungo Alde Zaharra, Dunboa, Arbes eta Meaka

- Hasiera: etxebizitzak %53k dute EMO.
- Amaiera: etxebizitzak %68 EMOREkin.
- Zuzeneko kontaktua: 2.467 etxebizitza.
- Abonatu berriak: 807.

Larreaundi, Olaberria, Behobia eta Artia

- Hasiera: etxebizitzak %56k dute EMO.
- Amaiera: etxebizitzak %71 EMOREkin.
- Zuzeneko kontaktua: 2.026 etxebizitza.
- Abonatu berriak: 664.

Hondarribiko Alde Zaharra eta Portua

- Hasiera: etxebizitzak %46k dute EMO.
- Amaiera: etxebizitzak %63 EMOREkin.
- Zuzeneko kontaktua: 1.236 etxebizitza.
- Abonatu berriak: 400.

BidaSOS2030ek emitza esanguratsuak erakutsi ditu ezarpen guztietan, eta nabarmentzekoa da EMOn parte hartzearen eta atxikitzearen gorakada. Datuek agerian uzten dute kanpainak eragin positiboa duela herritarren kontzientzian eta parte-hartzean, hondakinen kudeaketa iraunkorragoa lortzeko bidea erraztuz eta 2030erako ezarritako helburuen ildotik.



07

Hiri garbiketa



1. Mugarri garrantzitsuak

Platinozko erratza

Txingudiko Zerbitzuak beste behin saritu dute jasangarritasunaren alde ezarritako politikengatik. Hondakinak eta Ingurumena Kudeatzeko Elkarte Teknikoak (ATEGURUS), aurtengoan, Irungo eta Hondarribiko garbiguneen osagarri gisa diseinatutako puntu garbiak eraginkortasunez ezarri direla aitortu du. Puntu horiek bi hirien beharretara egokitu dira, eta edukiontzi bakarrean 10 hondakin ezberdin biltzea ahalbidetzen du, espazioa optimizatuz eta birziklatzea erraztuz.


Laugarrenez jaso du Txinzerrek sari ospetsu hau, ondakinen kudeaketa hobetzeko eta ingurune garbiago eta jasangarriagoa sustatzeko duen konpromisoaren eta etengabeko ahaleginaren isla argia.

ATEGRUSEk gure hiri eta industrietako hiri-hondakinen kudeaketa, garbiketa eta oro har hiri-garbiketa hobetzen duten ekimenen inplementazioan nabarmentzen diren erakundeak saritzen ditu eta aurtengoa hemeretzigarren edizioa izan da.



2. Jasotako jakinarazpenak

	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Desinfestazioa	17	35	15	46	107	104
Ospakizunak	158	33	75	132	117	162
Izotza	9	0	13	21	11	10
Paperontziak: eskaera eta birkokapena - mantenimendua	101	70	70	51	60	114
Graffitiak eta pankartak	108	117	143	184	206	171
Kale garbiketa zerbitzua	92	206	141	123	165	195
Zikinkeria, oro har	1.263	1.230	1.226	1.340	1.479	1649
Arratoien pozoia	574	639	449	476	577	1214
Kontrolik gabeko isurketak					180	277
GUZTIRA Kale garbiketa	2.343	2.330	2.138	2.380	2.902	3.896



3. Emandako zerbitzu-kopurua (lanaldiak)

	2020	2021	2022	2023	2024
Espaloiak eskuz erraztatzea	8.992	9.041	9.041	9.041	9.041
Erraztatze mekanikoa	3.315	3.364	3.364	3.364	3.364
Espaloiak eskuz ureztatzea	1.095	1.147	1.147	1.147	1.147
Ureztatze mekanikoa	872	872	872	872	872
Fregagailua	300	300	300	348	348
Hidrogarbiketa (graffitiak, pankartak, igogailuak...)	599	599	724	599	599
Jolastokiak garbitzea	298	298	298	298	298
Berehalako ekintza brigada / auzoak	596	596	596	596	596
Zaborrontzien mantentzea	149	149	149	149	149
Eremu bereziak eta poligonoak garbitzea	248	248	248	248	248
Belar eta hostoak kentzeko goi-denboraldiko indargarriak (lanaldiak)	575	575	575	575	575

4. Ibilgailuak

Espaloi erraztagailua	9
Kaleak erraztatzeko makina	1
Espaloiak urez garbitzeko makina	1
Bideak urez garbitzeko makina	1
Fregagailua	1
Desugertzailea	1
Fatxaden hidrogarbiketa	1
Hidrogarbigailua (Jolastokiak/Presio-garbiketa)	3
Kutxa irekiko kamioia (Poligonoen eta gunere berezien brigada)	1
Mini-furgoneta (Langileen garraioa)	9
Lur orotarako ibilgailua (Ikuskapen-lanak)	2



5. Medios Auxiliares

Kale garbiketako orgak	28
Urez garbitzeko orgak	4
Motosegak	3
Haizegailuelektrikoak	12
Heskai-moztekoa	1
Altueran inauteko makina	1
Gatz-zabaltzeko makinak	6
Elurra kentzeko makina	2



Sentsibilizazioa eta komunikazioa





8. Sentsibilizazioa eta komunikazioa

Ingurumen-hezkuntza eta sentsibilizazioa oinarrizko zutabeak dira gure eguneroko lanean. 2024an zehar, herritarrak inspiratzeko, informatzeko eta motibatzeko nahi hainbat ekimen egin ditugu, gure ingurunearekiko konpromiso iraunkorra sustatuz.

Hauek dira azken urtean ingurumen-hezkuntzaren arloan garatu diren jarduera-ildo nagusiak:

- Hezkuntza-zentroentzako ingurumen tailerrak
- Zisare Konpostatze Programa
- BidaSOS2030 birziklapen kanpaina
- Merka2dasoa
- Herritarren bisitak gure instalazioetara
- Lankidetza eta komunikazioa kirol-probetan
- Presentzia Bioterran
- Familia konpostatzaileekin lankidetza
- Herritarrekiko komunikazioa eta gardentasuna

1. Hezkuntza-zentroentzako ingurumen tailerrak

Gure eskaintza eskualdeko ikastetxeetako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago, eta belaunaldi gazteak ingurumen gaietan sentsibilizatzea du helburu. Ingurumen jasagarritasuna tokiko gizartean errotuta egongo den etorkizuna eraiki nahi dugu.

2024-2025 ikasturtean bi berrikuntza txertatu ditugu:


- **Marrazki lehiaketa:** tailerren ardatz izango den pertsonaia bat diseinatzeko ekimena. Lehiaketa honen helburua ikasleak sormen prozesuan inplikatzeko izan da, ideiak proposatu eta hezkuntza eskaintzaren protagonista izateko aukera emanez.
- **Escape Hall digitala:** Escape Hall tradizionalaren bertsio berritzailea, ingurune digitalera egokitua eta DBHko eta Batxilergoko ikasleei zuzendua. Tabletak erabiliz, ikasleek taldean lan egiten dute Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) lotutako erronkak ebazteko.

Gainera, hauek dira azken ikasturtean eskaini ditugun tailerrak:

- Uraren Ziklo Integraleko Tailerra
- Bisitak EUTera (Elordiko edateko ura tratatzeko estazioa)
- Bisitak HUara (Atalerrekako hondakin-urak arazteko estazioa)
- Hondakinen tailerra
- Hiri-garbiketako tailerra
- Energiaren tailerra
- Konpostaje-tailerra
- GJHen tailerra (2030eko Agendarako Garapen Iraunkorreko Helburuak)
- Kontsumo arduratsuko tailerra
- Uraren Bidea (Elurretiket irugurutzetaraino)


2024ko tailerretako parte-hartze datuak

Ikastetxeetako tailerren datu orokorreari dagokienez, 2024an, guztira 4.213 ikaslek hartu dute parte jardueretan, inplikazio maila handia mantenduz, aurreko urteko zifra errekorretara iritsi ez arren.



1.1. Uraren Ziklo Integralaren tailerra


- 1.330 alumnos ikaslek hartu dute parte guztira.
- 33 tailer egin dira (10 Atalerreka eta 21 Elordi) 12 ikastetxetan.



-% 25

1.2. Hondakinen tailerra


- 898 ikaslek hartu dute parte guztira.
- 43 tailer egin dira 11 ikastetxetan.



+%12,7

1.3. Hiri Garbiketa tailerra


- 340 alumnos y alumnas ikaslek hartu dute parte guztira.
- 17 tailer egin dira, 7 ikastetxetan.



-% 36,5

1.4. Energia tailerra


- 136 ikaslek hartu dute parte guztira.
- 7 tailer egin dira 2 ikastetxetan.



-% 76,8

1.5. Taller de compostaje


- 328 ikaslek hartu dute parte guztira.
- 15 tailer egin dira 5 ikastetxetan.



+% 81,2

1.6. Taller de los ODS: Escape Hall


- 779 ikaslek hartu dute parte guztira.
- 36 tailer egin dira 5 ikastetxetan.



+% 695

1.7. Taller de consumo


- 328 ikaslek hartu dute parte guztira.
- 16 tailer egin dira 5 ikastetxetan.



-% 58,6

1.8. Uraren bidea

- 74 ikaslek hartu dute parte guztira.



-%23,7

1.9. Marrazki lehiaketa

42 marrazki aurkeztu dira Txingudiko Zerbitzuen ingurumen-tailerren ardatz izango den pertsonaia sortzeko. Lehiaketa honek ikasleak sormen-prozesuan inplikatzeari bilatu du, ideiak proposatzeko eta hezkuntza-eskaintzaren protagonista izateko aukera eskainiz.

Hauek dira lehiaketara aurkeztutako marrazkiak:



2. Merka2dasoa

2008az geroztik, Merka2dasoa Txingudiko Zerbitzuen bigarren eskuko merkatua izan da, ekonomia zirkularraren ikuspegia duen hezkuntza-jarduera, egoera onean dauden objektuak berrerabiltzea sustatuz. Eskualdeko edozein egoiliarrek eska dezake postu bat nahi ez diren artikuluak saltzeko. Merkatua bi formatutan egiten da:

- Azoka tradizionalak
- 500 €-tik beherako bigarren eskuko bizikleten azoka.

2024 honetan, bigarren eskuko 5 azoka antolatu dira, bi Irunen, bat Hondarribian eta bi bizikleta eta patinete elektrikoen azoka (bat Irunen, Mugikortasunaren Asteari lotuta, eta beste bat Bioterran, produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azokan). Azokan 36 bizikleta jarri ziren salgai, eta horietatik 20 saldu ziren. “Happy or not” sistemaren arabera, balorazioen % 75 onak edo oso onak izan ziren.

Merkatu mota	Data	Lekua	Partaidetza
Merka2dasoa "mugikortasuna"	2024/06/7-8-9	Irun	36 bizikleta
Merka2dasoa "mugikortasuna"	2024/09/22	Irun	110 bizikleta eta 5 patinete elektriko
Merka2dasoa "tradizionala"	2024/07/25	Irun	32 norbanako, elkarte 1, ikastetxe 1
Merka2dasoa "tradizionala"	2024/07/06	Hondarribia	30 norbanako
Merka2dasoa "tradizionala"	2024/10/05	Irun	29 norbanako, 4 elkarte, ikastetxe 1



3. Herritarren bisitak gure instalazioetara

Tradizioa da Uraren Nazioarteko Eguna edo Saneamenduaren Mundu Eguna direla eta herritarrentzako doako bisita gidatuak antolatzea.

Aurten bi bisita egin dira Endarako urtegira eta Elordiko edateko uren araztegira, eta beste bi Atalerrekako Hondakin Uren Araztegira, herritarren artean saneamendu eta hornidura instalazioak ikusarazteko eta balioesteko helburuarekin.

Martxoak 24

Bisita Endara eta Elordira.

1Abenduak 1

Hondartzako ponpaketa-estaziora eta Atalerrekako araztegira bisita.



4. Familia konpostatzaileekin lankidetza

Txingudiko Zerbitzuak-ek lorategia edo baratzea duten familiei zuzendutako etxeko konpostaje kanpainaren beste edizio bat abiarazi du, etxeetan sortzen diren hondakin organikoen kopurua murrizteko eta praktika jasangarriagoak sustatzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuaren babesa duen ekimen honek erakusten du erakundeak ingurumena errespetatzen duen bizimodu bat bultzatzeko eta zabortegetan amaitzen den hondakin kopurua murrizteko duen konpromisoa.

Bi gutun bidali dira. Batetik, izen-emanda 684 familiei, datu basea eguneratzeko eta laguntza teknikoa zein materiala eskaintzeko. Bestetik, etxean baratzea edo lorategia duten 1.162 familiei, alta eman dezaten.

Zerbitzu hau etengabe dago eskuragarri, eta doakoa da.



5. Herritarrekiko komunikazioa eta gardentasuna

Herritarrak kontzientziatzea eta sentsibilizatzea oinarrizkoa da gure lanean, komunikazioa eta gardentasuna funtsezko jotzen baititugu. Urtean zehar, jasagarritasunarekin eta ingurunearen zaintzarekin dugun konpromisoa indartzen duten mezuak zabaltzeko hainbat ekimen gauzatu ditugu.

Prentsa, irratia eta sare sozialak erabili ditugu ekitaldi nabarmenekin lotutako mezuak zabaltzeko:

Oharrak eta prentsaurrekoak



Hezkuntza-eskaintzaren aurkezpena



Irungo jaietako dispositiboaren aurkezpena



Hondarribiko jaietako dispositiboaren aurkezpena




Arreta bulegoaren aurkezpena
BAZ Hondarribian



TD2B, ura digitalizatzeko hiru proiektu nazional onenen artean, PERTEren 2. deialdian

Ingurumen garrantziko Nazioarteko Egunak


- Energiaren Mundu Eguna
- Ingurumenaren Nazioarteko Eguna
- Plastikozko poltsarik gabeko Nazioarteko Eguna
- Energia Aurrezpenaren Mundu Eguna
- Saneamenduaren Nazioarteko Eguna



Eguberri arduratsuak




Festa jasagarriak



Kongresu eta jardunaldietan parte hartzea

- IWA Water Loss 2024ko Nazioarteko Kongresua, Donostian.
- AEAS XXXVIII. Kongresua, Castellón.
- Egokitzapen Klimatikoari, Zirkulartasunari eta Digitalizazioari buruzko jardunaldia, Aclimak antolatuta, Bilbon.
- Aigües Manresako instalazioetara bisita. Ur-proiektu handien kudeaketari buruzko esperientziak trukatzeko jardunaldia.





09




Pertsonak, erdigunean



1. Langileak




Adinaren arabera banaketa




2. Langileen kontratazioa eta erretiroa

3 langile erretiro partzialera pasa dira.



3 hautaketa-prozesuen ondorioz, 3 kontratu finko formalizatu dira.



3. Lan egin gabeko urteko egunak

490

Kontingentzia Profesionala


2291

Kontingentzia Komuna

2781 baja egun




2034



747



Emakumeak
27%



Gizonak
73%


Gaixotasun arruntak (2291) eta gaixotasun profesionalak (490) eragindako ABE egunez gain, 2024an honako hauek erregistratu dira:

- 450 eguneko eszedentzia eta soldatarik gabeko baimenak.
- Amatasun/aitatasun eta edoskitzaroko 379 egun.
- 25 egun ondoezik
- 110 eguneko murrizketa, % 99,99koa, gaixotasun larria duen adingabea zaintzeko baimen berezia duen langile batentzat (MUTUA/INSS).



Horrez gain, sindikatu-eginkizunak betetzeko azken urteetako lizentzia-orduen grafikoa erantsi da:

Urtea	Sindikatu-eginkizunak betetzeko lizentzia
2024	873,4
2023	242,65
2022	189,78




(*)(*) 2024an, batzordeko pertsona bat eszedentzian egon da 2023/11/06tik 2024/11/06ra.

4. Pertsonal gastuak




Pertsonal gastuak, arloka



5. Istripuak

	2020	2021	2022	2023	2024
Laneko istripuak gaixotasun bajarekin	0	2	3	4	6
Gaixotasun bajaran gabeko lan-istripuak	4	12	3	6	9
Gaixotasun profesionalak bajarekin	0	0	0	0	0
Gaixotasun profesionalak bajaran gabe	0	0	0	1	0
Bajadun Llen berrerortzeak	0	0	0	0	1
GUZTIRA	4	14	6	11	16

Adin-tarteen arabera



6. Nabarmentzekoak

Prebentzioa, segurtasuna eta laneko osasuna

Txingudiko Zerbitzuek Segurtasun eta Osasun Batzorde bat dute, funtsezkoa langile guztien ongizatea eta babesa bermatzeko. Batzorde hori arduratzen da laneko arriskuak aztertzeaz eta jorratzeaz, prebentzio-neurriak ezartzeaz, gertakariak eta istripuak ikertzeaz, eta prebentzioa enpresako arlo guztietan txertatzea sustatzeaz.

Lege-eskakizunak eta bestelakoak betetzea

Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileretan ohiko gai hauek landu dira:

- Lan-baldintzak aztertzea.
- Arriskutsutzat jotzen diren jardueretarako lan-prozedurak ezartzea
- Gertatutako istripuak eta gertakariak aztertzea. Istripu-tasari buruzko txostena.
- Langileek egindako eskaerak kontuan hartzea.
- Prebentzioa enpresako esparru guztietan txertatzea.

Egindako formakuntzak

- Amiantoarekin lan egiteko prestakuntza
- Gune konfinatuetako prestakuntza
- Altuerako lanetarako prestakuntza
- Jazarpenari eta gizalegearen aurkako jokabideei buruzko prestakuntza
- Prestakuntza APQ instalazioetan (produktu kimikoak biltegitratzea)

Egindako jarduerak

- Azterketa medikuak; horietatik, langile guztientzako gaitasun-ziurtagiriak eman dira, kontuan hartuta horietako bi gai direla mugekin. Mugak dituzten gaitasunen edo beste edozein behaketaren ondorioz, hobetzeko prebentzio neurriak hartu dira, lanpostua eta/edo zereginak langileari egokitzeko.
- Gaixotasun profesionalaren susmoak: **0**
- Bereziki sentikorrak diren langileak: **0**
 - Gai, zaratarekiko sentikorra: **5**
 - Mugak/gaitasun ezak dituzten langileak
 - Gai, mugekin: **3**
 - Gai, baldintzatuak: **14**
- Lantokietako arriskuen ebaluazioak berrikustea eta segurtasun-baldintzak betetzen diren ikuskatzea.
- Lanpostu berrien arriskuen ebaluazioak egitea.
- Berrikusitako arriskuen ebaluazioaren zabalkundea.
- Istripuak ikertzeko txostenak egitea.
- Larrialdi-planak egitea.
- Makina berriak erostea.



Berdintasun Plana

2024an, Berdintasun Planean aurreikusitako ekintzen jarraipena eta sustapena egin da. Berdintasun Batzordea 3 aldiz bildu da urtean zehar, besteak beste, ondorengo sentsibilizazio eta ikusarazte ekimenak bultzatzeko.

- Martxoaren 8ko kanpaina, Emakumearen Nazioarteko Eguna.
- Azaroaren 25eko kanpaina, Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna.

Gainera, TXINZEReko langileei Irun eta Hondarribiko Udalek antolatutako jardueren berri eman zitzaien.

Era berean, Berdintasun taldeak azaroaren 25eko ospakizunerako irudi adierazgarri hau aukeratu zuen:



Lanpostuen balorazioa

2024ko maiatzetan, aholkularitza enpresak egindako diagnostikoaren eta Jarraipen Batzordeak ondoren egindako lanaren ondorioz, zuzendaritzako bi kidek eta Langileen Batzordeko beste bik osatuta, langile guztiei jakinarazi zitzairen beren lanpostuen balorazioaren emaitza, eta epe bat ireki zen ekarpenak eta alegazioak egiteko.

Horretarako irekitako epean, plantillaren % 90ek alegazioak aurkeztu zituen. Hurrengo hilabeteetan, lanpostuen balorazioaren Jarraipen Batzordea bildu da langileen eskaerak eta ekarpenak aztertzen joateko, eta 2024ko abenduan ez da prozesua amaitu.

Barne-komunikazioa hobetzeko plana

Planean aurreikusitako ekintzen jarraipena eta sustapena egiteko, 2024/12/05ean jarraipen eta hausnarketa saio bat egin zen hainbat arlotako pertsonekin, markatutako ekintzen egokitasuna baloratzeko eta hurrengoak lehenesteko.

Ekitaldian zehar, barne komunikazioa hobetzeko hartutako konpromisoen barruan, arloko bilerak areagotu dira eta bi barne aldizkari edo Newsletter egin eta argitaratu dira.



Euskara Plana

2022an egindako diagnostikoaren ondorioz, 2023an erakundearen lehen Euskara Plana onartu zen. Onarpenarekin batera, erakundean euskara erabiltzeko printzipioak ezarri ziren, eta ekintza espezifikoak diseinatu ziren Institutuzionalizazioa, Tresnak, Antolaketa, Pertsonak eta Motibazioa arloetan. Ekintza horiek Planaren indarraldian garatuko dira, hizkuntzaren erabilera eraginkorragoa izatea eta zerbitzua hobetzea bermatzeko, bai barnean, bai kanpoan.

Urtarrilean, batzordea bildu zen ekintza horien ebaluazioa egiteko, beste batzuk abian jartzeko eta haien jarraipena bermatzeko. Euskara batzordea guztira hiru aldiz bildu da.

Urtean zehar, hainbat kanpaina antolatu dira erakunde barruan eta kanpoan euskararen erabilera sustatzeko:

- Hizkuntza aniztasunaren defentsa Cadizetik, "Las hijas de Neptuno" haurrentzako txirigotaren eskutik, euskaraz abestuz.
- Informazioa eta parte-hartzea sustatzea KORRIKAN.
- Informazioa eta parte-hartzea sustatzea Herri Urrats, Ibilaldia, Kilometroak, Nafarroa Oinez eta Euskal Eskola Publikoaren Jaian.
- Udako eta 2024-2025 ikasturteko euskara ikastaro trinkoei buruzko informazioa.
- Informazioa eta parte-hartzea sustatzea DA! Durangoko Liburu eta diska azoka.
- Euskararen eguna: euskarari omenaldi txiki bat egiteko, 33 emakume euskaldunek abestutako ZEA MAYS taldearen "Elektrizitatea" abestia aukeratu genuen.

TD2B informazio-jardunaldia, OAP berrian

Urriaren 9an, langileentzako informazio-jardunaldi bat egin zen OAP bulego berrituan. Bertan, instalazio berrituak aurkeztu ziren eta TD2B (Txingudi Data Driven Bay) proiektuaren aurrerapenak partekatu ziren, ura digitalizatzeko PERTEaren esparruan.

Teknologiaz haratago, proiektu hau, batez ere, pertsonez ari da. Taldeen ezagutza, inplikazioa eta konpromisoa funtsezkoak izango dira benetako eraldaketa iraunkorra izan dadin. Ikuspegi horrekin, Txinzer bikaintasunerantz doa aurrera, zerbitzu hurbilagoa, eraginkorragoa eta herritarren beharretara gehiago egokitzen den zerbitzua eskaintzeko.



2024ko langile berriei ongietorria

Iaz bezala, 2024an jardunaldi berezi bat antolatu da urtean zehar Txinzerren sartu diren pertsona guztiei ongietorria emateko. Instalazioak bertatik bertara ezagutzea eta, aldi berean, taldean laguntasuna eta integrazioa sustatzea da helburua.

Lehen edizioak izan zuen arrakasta ikusita, jardunaldia tradizio gisa finkatu nahi da Txinzeren, kide izatearen sentimendua indartuz eta elkarlanerako ingurune bat sustatuz.

Jardunaldiaren egitarauak honako jarduerak hauek barne hartu ditu:

- OAPra bisita
- HUARA bisita
- EUA + laborategia bisitatzea
- Perujaraneko bulegoak bisitatzea

Ekimen honek Txinzerrek bere taldearen ongizatearekin eta integrazioarekin duen konpromisoa islatzen du, erakundean sartzen den pertsona bakoitza harrera eta proiektu komun baten parte dela ziurtatuz.



Patrona Eguna

Urtero, ekainaren 1ean, Argiaren Andre Maria ospatzen da, eta tradizioz Uraren, Gasaren eta Elektrizitatearen Patroia oroitu izan da egun horretan. Hori dela eta, Txinzerreko langile guztientzako ospakizun-eguna ere bada.

Ohiturari jarraituz, ospakizuna ekainaren 1etik hurbilen dagoen ostiralean antolatzen da. Aurten, maiatzaren 31n egokitu da. Eguna ospatzeko, txango bat antolatu zen, Domikoko kanalera ura bideratzeko uhatea bisitatzeko, zentral hidroelektrikotik ibilbidea egiteko eta ubidean zehar ibilaldia egiteko. Sistema honetan, ura Arrizumetako urtegira bideratzen da, eta handik, Irugurutzetako zentral hidroelektrikoraino doan desnibela baliatuz, energia hidrauliko berriztagarria sortzen da.

Ospakizun honen helburua taldean giro osasuntsu eta kolaboratiboa sustatzea da, harreman pertsonalak eta konfiantza indartuz. Aldi berean, kudeatzen ditugun azpiegituren ingurunea eta haien funtzionalitateak hobeto ezagutzeko aukera ematen du.





TXINGUDIKO ZERBITZUAK
SERVICIOS DE TXINGUDI